

**215/2005 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa,
Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko
araudia onetsi duena
(BAO Abenduaren 31koa)**

Martxoaren 10ean Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko 2/2005 Foru Araua onetsi zen. Horren bitartez Bizkaiko zerga-arautegi orokorra eraberritu eta eguneratu da eta goitik behera berrikusi dira Zerga-administrazioak bere eginkizunak betetzeko aplikatu behar dituen prozeduren egitura eta arauak.

Zergak biltzeko eginkizun horren barruan, aipatu foru arauak zergak araupetzeko arauen sistematika berri bat ezarri du; izan ere, zergapekoei segurtasun juridiko handiagoa eskaintzeko, prozedurazko manu garrantzitsu batzuk gehitu ditu, indarrean jarri arte 1997. urtean onetsi zen zerga-bilketari buruzko araudian jasotzen zirenak. Gainera, foru arau horretako hainbat manutan geroagoko garapena aipatzen da eta beste kasu batzuetan xedapen batzuk argitu behar dira edo zerga-bilketako organoek jarraitu behar dituzten prozedura-izapideak araupetu behar dira.

Horrela, foru dekretu honen bidez onesten den zerga-bilketari buruzko araudiak egungo zerga-bilketarako prozedurak lege-esparru berrira egokitu nahi ditu, Bizkaiko Foru Ogasuneko zerga-bilketaren kudeaketa hobetzeko asmoz.

Hori dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposaturik eta Bizkaiko Foru Aldundiak 2005eko abenduaren 27ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe.

XEDATU DUT.

Artikulu bakarra. Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudiaren onespena.

Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudia onetsi da, eta foru dekretu honetako eranskin gisa ematen da.

Bilbon, 2005eko abenduaren 27an.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua,

JOSE MARIA IRUARRIZAGA ARTARAZ.

Ahaldun Nagusia,

JOSE LUIS BILBAO EGUREN.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Bakarra.

Foru dekretu hau indarrean jarritakoan indargabetuta geratuko dira bertan xedatutakoaren kontra dauden lerrun bereko eta beheagoko lerruneko xedapen guztiak. Bereziki, hurrengoak indargabetuko dira:

- a) 36/1997 Foru Dekretua, martxoaren 18koa, Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-bilketari buruzko araudia onetsi duena.

- b) 203/2003 Foru Agindua, urtarrilaren 15ekoa, 2003ko urtarrilaren 1etik aurrera emango diren ordaintzen geroratzeetan ordaintzeko era eta aurreratzen diren zenbatekoen tratamendua ezarri duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena. Araudiaren gaikuntza.

Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu honetan eta beraren bidez onetsi den araudian xedatutakoa garatzeko eta aplikatzeko behar diren arau guztiak emateko.

Bigarrena. Indarra hartzea.

Foru dekretu hau 2006ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

ERANSKINA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO ZERGA-BILKETARI BURUZKO ARAUDIA

I. TITULUA XEDAPEN OROKORRAK

I. KAPITULUA ARAU ERKIDEAK

I. ATALA ZERGA-BILKETA

1. artikulua. Edukia eta aplikazio-eremua.

1. Araudi honek, zergen arloko zorrak eta zehapenak kobratzeko administrazio-eginkizunak eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideak garatzen ditu; Foru Administrazioari aplikatuko zaio.

Araudi honen ondoreetarako, zerga-sarreraren ziozko kredituak eta zuzenbide publikoko gainerakoak aurrerantzean zorrak izango dira, eta horiek ordaindu behar izango dituzte dagokion araudiaren arabera aipatu zorrei dagokienez zenbatekoen bat ordaindu behar duten pertsonak edo erakundeak.

2. Foru Aldundiak Estatuaren lurralde osoan erabiliko ditu zerga-bilketaren arloan dituen eskumenak, Ekonomia Itunean xedatutakoarekin bat etorriz.

2. artikulua. Zerga-bilketa.

1. Ogasun eta Finantza Sailak bilduko ditu Foru Administrazioaren eta bere foru erakunde autonomoen zergak eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideak, eginkizun hori eratzikita duten bere organoen bitartez.

Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru agindu bidez beste foru sail edo foru erakunde autonomoei baimena eman ahal izango zaie zergen arlokoak ez diren zuzenbide publikoko baliabide jakin batzuen zergak biltzeko.

2. Ogasun eta Finantza Sailak bere gain hartu ahal izango du beste administrazio edo izaki publiko batzuen baliabideen bilketa, behar diren hitzarmenak formalizatuz.

Halaber, legeek edo foru arauak ezartzen dituzten beste herri administrazio batzuen berezko zerga-bilketako lankidetzak-jarduketak burutuko ditu.

3. Zerga-bilketa Zerbitzuari atxikita dauden langileek txartela edo beste identifikazio-agiriren bat edukiko dute euren eginkizunetan aritzeko. Bulego publikoetatik kanpo aritzen direnean, langile horiek nor diren egiaztatu behar dute eskatzen zaien guztietan.

3. artikulua. Kutxa-zerbitzua eskaintzen duten erakundeak eta zerga-bilketan laguntzen duten erakundeak.

1. Gordailu erakundeek kutxa-zerbitzua eskain dezakete, baldin eta Ogasun eta Finantza Sailak hala hitzartu badu.

Araudi honen ondoreetarako, gordailu erakundeak dira bankuak, aurrezki kutxak eta kreditu kooperatibak.

2. Zerga-bilketan laguntzen duten erakunde bezala jardun dezakete Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru agindu bidez baimena duten erakundeek.
3. Alabaina, formalizatzen den hitzarmenak edo ematen den baimenak ez die inola ere zerga-bilketako organo izaera emango kutxa-zerbitzua ematen duten gordailu erakundeei edo zerga-bilketan laguntzen duten erakundeei.

II. ATALA ZERGA-BILKETARAKO AHALMENAK

4. artikulua. Informazio-betebeharrei buruzko ahalmenak.

1. Zerga-bilketa organoek euren eginkizunak burutzeko behar duten informazioa eskuratu ahal izango dute, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 92. eta 93. artikuluetan ezarritakoa betez.
2. Erakundeek, Zerga-bilketako Burutzak hala eskatzen badie, ordainarazpen-aldian zordun direnen eta horiekin zerikusia duten hirugarrenen kontu korranteetako, gordailu kontuetako, aurrezki kontuetako, eperako kontuetako, mailegu kontuetako edo kreditu kontuetako saldoari buruzko informazioa eman beharko dute; baita horiek, banaka nahiz taldeka, dituzten eragiketa aktibo eta pasiboei buruzko informazioa ere.
3. Ordainarazpen-aldian zordun direnei edo horien eragiketekin zerikusia duten hirugarrenei buruzko bankuen, aurrezki kutxen, kreditu kooperatiben eta banku- edo kreditu-trafikoan aritzen diren erakundeen kontu korrante, aurrezki eta eperako gordailu, mailegu eta kreditu kontuetako mugimenduei eta gainerako eragiketa aktibo eta pasiboei (kontu iragankorretan islatzen edo txekeetan eta bestelako ordainketa-aginduetan gauzatzen diren eragiketak barne) buruzko banakako errekerimenduak zerga-bilketa eginkizunetan jardutean egin daitezke, Ogasuneko zuzendari nagusiak baimena eman ondoren.
4. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 166. artikuluko 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera ordaindu beharra duen pertsonari agindeiak egin ahal izango zaizkio Administrazioari azaltzeko (honek hala eskatzen badio) zorraren zenbatekoa ordaintzeko bere ondarean zein ondasun eta eskubide dituen. Agindei horiek premiamendu-prozeduretan egin daitezke ordaintzera behartuta dagoen horrek eskuratu duen kaudimena ikertzeko. Ordaindu gabe dituen zorrak zehatz identifikatuko ditu eta jakinarazpenak etendura-ondorioak izango ditu, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 69. artikuluko 2. idatz-zatiko a) letran ezarritakoarekin bat etorritz.
5. Zerga-bilketa Zerbitzuari atxikita dauden langileek zorra kobratzeko edo zerga-erantzukizuna aitortzeko beharrezkoak diren ikerketak eta informazioa lortzeko jarduketak burutuko dituzte, eta gai bakoitzerako adituen laguntza izan dezakete. Eginkizun horretarako, hain zuzen, zergapekoen eta horien eragiketekin zerikusia duten hirugarrenen ondasun, eskubide eta erregistroei dagokienez ondokoak aztertuko dituzte: batetik agiriak, liburuak, kontabilitate orokorra eta lagungarria, fitxategiak, fakturak, egiaztagiria, zerga-eragina duen posta, informatizatutako datu-baseak, programak, erregistroak eta jarduera ekonomikoei buruzko artxibo informatikoak aztertuko dira eta bestetik ondasunak,

elementuak, ustiapenak eta zerga-betebeharra eskatzeko Administrazioari eman behar zaion edo beharrezkoak diren aurrekari edo informazio guztiak ikuskatuko dira.

6. Zerga-bilketako organoek eskatutako informazioa horretarako jakinarazpena jaso bezain laster eman beharko da, agindu hori ezin dela berehala bete behar bezala frogatzen duten arrazoiak daudenean izan ezik; kasu horretan, hamar egun balioduneko epea eman ahal izango da eskatutakoa betetzeko.

5. artikulua. Finketan eta lokaletan sartzea.

1. Zerga-bilketarako jarduketan zioz zeregin hori burutu behar duten organoak zergapeko jarduerak edo ustiapenak egiten diren, zergapeko subjektuak dauden, zerga-egitateak gertatzen diren edo haien frogak dauden finketan, negozioko lokaletan eta establezimendu zein tokietan sar daitezke jarduketak egiteko eta, bereziki, interesatuen ondasunak, bulegoak, instalazioak edo ustiapenak ezagutzeko, eta beharrezko froga-jarduketa guztiak egin ahal dituzte.

Hain zuzen ere, Foru Administrazioaren zerga-bilketako jarduketak burutzeko beharrezkoak diren ondare elementuak edo froga-elementuak daudelako zantzua dagoen edozein tokitan sartu ahal izango dira.

2. Interesdunak edo finken zaintza bere gain duen pertsonak zerga-bilketako organoei sartzan uzten ez dietenean Ogasuneko zuzendari nagusiaren baimena behar izango da. Nolanahi ere, horrelako kasuetan bidezko kautelazko neurriak har daitezke.

Interesdunak edo finka zaintzen duen pertsonak bertan sartzeko beharrekotzat jo ohi diren egintzak egiten baditu, sartzeko edo aztertze baimena eman duela pentsatuko da.

3. Zergapeko baten egoitzan sartu behar bada aztertze asmoarekin, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 111. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, egoitza Konstituzioaren babespean baitago; baina interesatuak berariaz bere egoitzan sartzeko baimena ematen badu dilijentzian jasoko da.

Horretarako, Ogasuneko zuzendari nagusiak manamendu-eskaera bidaliko dio epai-agintaritza egokiari. Beste alde batetik, txosten arrazoiztua bidaliko zaio Ogasuneko zuzendari nagusiari, Zerga-bilketa Zerbitzuak ontzat eman ondoren.

Finka bat aldi berean erabiltzen bada egoitza gisa (Konstituzioaren babesarekin) eta jarduera ekonomiko bat egiteko eta xede bakoitzerako atalak argi bereizita badaude eta bakoitzak bere sarrera badu, jarduera ekonomikoa egiten den ataleko sarrera ez da hartuko Konstituzioaren babespean dagoen egoitzaren sarreratzat.

Salbuespenezko kasu batzuetan, besteak beste, zerga-bilketako organoak uste duenean ondasunak ostendu edo desagertu daitezkeela, epailearen baimena eskatu ahal izango du horretarako alde aurretik interesatuaren adostasuna eskatu beharrik izan gabe.

6. artikulua. Frogabideak bermatzeko kautelazko neurriak.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 166. artikuluan xedatutakoa betez, jarduketak burutuko dituen Zerga-bilketa Zerbitzuari atxikita dauden langileek arau horretako 142. artikuluan ezarri diren frogabideak bermatzeko kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte.
2. Hartzen den neurriaren eta lortu nahi diren helburuen izaera eta hedapenaren artean proportzionaltasuna egon beharko da, betiere interesatuaren jardueraren ohiko garapena ahalik eta gutxien eragozten ahaleginduz.
3. Hartu diren neurri horiek behar bezala dokumentatuko dira; hau da, dilijentzia batean labur jasoko dira neurriak hartzea eragin duten inguruabarrak, arrazoiak eta helburua. Halaber, interesatuari ohartaraziko zaio alegazioak aurkezteko eskubidea duela, hurrengo idatz-

zatian adierazitakoaren arabera. Kautelazko neurriak hartzen diren unean bertan egingo da dilijentzia; baina interesatuaren jarreragatik edo Administrazioari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik orduan egin ezin bada, geroago egingo da. Nolanahi ere, dilijentzia egin eta segidan horren kopia bat bidaliko zaio interesatuari edo horren ordezkariari.

Ondasunak gordailutzeko neurria hartzen denean, gordailuzaina nor den adierazi eta horren berriazko onarpena jaso beharko da; halaber, jasota utziko da ohartarazi zaiola gordailututako elementuak emandako modu berean gorde beharko dituela Zerga-administrazioaren esku eta bere betebeharrak betetzen ez baditu administrazio-erantzukizunak edo zigor erantzukizunak izango dituela.

4. Kautelazko neurria hartu den unean interesatua edo horren ordezkaria bertan izan ez badira, jakinarazi egingo zaie. Hauek, bestalde, neurri horri buruz bidezkotzat jotzen dituzten alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte Zerga-bilketa Zerbitzuaren Burutzan, jakinarazpena egin eta biharamunetik zenbatzen hasiko den bost eguneko epealdi luzaezinean.

Jarduketak interesatuarekin edo horren ordezkariarekin konpontzen direnean, edo neurria hartzean horietariko bat aurrean dagoenean, aurreko idatz-zatian aipatutako dilijentziaren kopia ematean jakinarazpena egin dela ulertuko da.

5. Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzaren titularrak behar bezala arrazoitutako erabakiaren bidez berretsi, aldatu edo kenduko ditu hartutako neurria, hartu den egunetik hamabost eguneko epearen barruan.

7. artikulua. Zorren kobrantza bermatzeko kautelazko neurriak.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 81. artikuluan ezarritako xede eta betekizunekin hartzen diren kautelazko neurriak Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak erabakiko ditu; era berean, burutza horretako titularrak hartuko du neurrien iraupena beste sei hilabetez zabaltzeko erabaki arrazoitua eta neurriak kendu edo aldatzeko erabakia.

II. KAPITULUA ZORRA AZKENTZEA

I. ATALA ORDAINKETA

8. artikulua. Ordainketa egiteko legebidezaketa.

Edozeinek egin dezake ordainketa, berdin da ordaintzera behartuak betebeharra betetzeko interesik daukan, horren berri daukan edo onartzen duen.

Zorra ordaintzen duen hirugarrena inoiz ere ez da legebidezaturik egongo ordaintzera behartuta dagoenari dagozkion eskubideak Administrazioaren aurrean erabiltzeko. Hala ere, ordainketa-egintzatik soilik beretzat datozen eskubideak erabili ahal izango ditu.

9. artikulua. Ordainketa egiteko tokia eta unea eta ordainketa jasotzeko legebidezaketa.

1. Zorren ordainketa kutxa-zerbitzua ematen duten erakundeetan eta zerga-bilketan laguntzen duten erakundeetan egingo da, zuzenean edo telematikoki, indarreko arautegiak horrela ezartzen duenean.

Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru agindu bidez, ordainketa egiteko beste toki batzuk baimendu ahal izango dira.

2. Ordainketa egiteko epea larunbat batean edo egun baliogabe batean amaitzen bada, mugaeguna lehenengo egun baliodunera igaroko da.

3. Ordainketak jasotzeko eskumena ez duten organoei edo horretarako baimenik ez duten pertsoneri egiten zaizkien ordainketek ez dute zorduna ordaintzeko beharretik aske utziko, behar ez den hartzailea erortzen den erantzukizunen kalterik gabe.

Zerga-bilketan laguntzen duten erakundeen zerrenda eguneratuta emango da Interneten.

10. artikulua. Nola ordaindu.

Zorrak eskudirutan, efektu tinbredunen bitartez eta gauzaz ordaindu ahal izango dira.

11. artikulua. Eskudirutan ordaintzeko bideak eta unea.

1. Zorrak eskudirutan ordaintzeko behean adierazten diren bideetako bat erabili ahal izango da, betiere Araudi honetan horietariko bakoitzerako ezartzen diren betekizunak eta baldintzak betez eta kasu bakoitzean ezartzen diren prozedurei jarraituz:

- a) Legezko erabilerako dirua
- b) Txekea
- c) Banku-helbideratzea
- d) Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru agindu bidez baimentzen direnak.

Alabaina, ordainketa zerga-bilketan laguntzen duten erakundeen bidez egiten bada, ordainketa jasotzen duen establezimenduak onartzen duen ordainketarako beste edozein modu ere baimenduko da. Kasu honetan, establezimenduak hartuko du ordainketa Zerga-administrazioan egiteko azken erantzukizuna.

2. Zergen arlokoak ez diren zorrak eskudirutan ordaintzeko, horren gaineko arautegiak baimentzen dituen bideak erabiliko dira. Horretarako arau berezirik ezarri ez bada, 1go idatz-zatian aipatutako bideak erabilita egingo da ordainketa.
3. Zorra eskudirutan ordaindu dela ulertuko da zorrari dagokion zenbatekoa zerga-bilketan laguntzen duten erakundeetan, kutxa-zerbitzua ematen duten erakundeetan edo ordainketa jasotzeko baimenduta dauden bestelako pertsoneri edo erakundeetan ordaintzen denean.
4. Dena den, zerga-bilketan laguntzen duten erakundeen, kutxa-zerbitzua ematen duten erakundeen edo baimenduta dauden bestelako pertsonen bitartez ordaintzen denean zorra, zordunari ordainketaren frogagiria emango zaio; horrela, zorduna frogagiria egin den egunetik bertatik zorra berriz ordaintzetik aske geldituko da, bertan adierazten den zenbatekoagatik betiere. Bestalde, zordunak frogagiria jasotzen duen unetik erakundea edo finantza-bitartekaria Zerga-administrazioaren aurrean behartuta egongo da bertan adierazten den zenbatekoagatik, frogagirian agertzen den data edo zenbatekoa oker daudela modu sinesgarrian frogatzen ez bada behintzat.
5. Zordunak ordainketa jasotzeko baimenduta dauden erakundeei edo pertsoneri emandako ordainketa-aginduek ez dute berez ondorioz izango Zerga-administrazioan; hori gorabehera, ordainketa-agindua egiten duenak dagozkion ekintzak gauzatuko ditu ez-betetzearen arduraduna den erakundearen edo pertsonaren aurrean.
6. Zorra ordaindu behar duenak horren zati bat bakarrik ordaindu nahi duenean Zerga-administrazioaren sarrera-agiria aurkeztu beharko du.

12. artikulua. Txeke bidezko ordainketa.

1. Kutxa-zerbitzua ematen duten erakundeetan egin beharreko ordainketak txeke bidez egin daitezke. Txekean, merkataritzako legeriak eskatzen dituen betekizun orokorrez gainera, hurrengoak ere jaso beharko dira:

- a) Bizkaiko Foru Ogasunarentzako txeke izenduna eta zeharkatua izatea.
 - b) Igortzailearen izena edo beronen sozietatearen izena, sinaduraren azpian oso argi adieraziko dena.
 - c) Erakunde igorpenduak adostu edo ziurtaturik egotea, ordainketa egiten den egunetik aurrera zenbatuko den gutxienez hiru egun balioduneko mugaegunarekin. Bestela, bankuak igorritako txekearen modua eta epea.
2. Erakunderen batek arestian aipatutako betekizunen bat betetzen ez duen txekea onartzen badu, arriskua bere konturakoa izango da; nolahi ere, ordaintzera behartuta dagoenaren aurka bidezkoak diren ekintzak gauzatu ahal izango ditu.

13. artikulua. Banku-helbideratzearen bidezko ordainketa.

1. Ordainketa banku-helbideratzearen bidez egin ahal izango da, betiere baldintza hauek betetzen badira:
- a) Ordainketa egin behar duena ordainketa helbideratu den kontuaren titularra izan behar da, eta kontu hori zerga-bilketan laguntzen duen erakunderen batean irekita egon behar da.
 - b) Ordainketa egin behar duenak helbideratzeko aginduaren berri eman behar dio Zerga Administrazioari; horretarako, Ogasun eta Finantzen foru diputatuaren foru aginduan kasu bakoitzerako ezartzen diren prozedurak beteko dira.
 - c) Ordainketa egin behar duenak helbideratze-kontuaren IBAN kodea adierazi behar du, eta, kontuaren titulartasuna ez badago jasota Zerga Administrazioan, justifikatu egin behar du titulartasun hori.
2. Ordainketaren frogagiritzat joko da zerga-bilketako erakunde laguntzaileak berriaz egindakoa, adierazitako banku-kontuan zordunketa egin ondoren.

14. artikulua. Banku-helbideratzeak kontuan zorduntzeko datak.

1. Zerga Administrazioak epe hauetan egin ahal izango du helbideratzeen zordunketa ordainketa egin behar duenak emandako banku-kontuan:
- a) Borondatezko epean baliabide telematikoen bidez aurkeztutako autolikidazioen kasuan, zerga edo sarrera publiko bakoitza arautzen duen arautegian zehaztutako epeak amaitu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.
 - b) Ordainarazpen-aldian baliabide telematikoen bidez aurkeztutako autolikidazioen kasuan eta borondatezko epean ordaintzeko data autolikidazio bakoitzerako ezarrita duten autolikidazioei dagozkien kasuan, ondoren adierazten diren bi egunetatik aurkezpen-datatik hurbilen dagoenetik hurrengo hiru egun baliodunetara bitartean:
 - Unean uneko hileko 25a edo horren osteko lehenengo egun balioduna.
 - Unean uneko hileko 10a edo horren osteko lehenengo egun balioduna.
 - c) Aldizka muga-eguneratzen eta taldeka jakinarazi behar ez diren zorren kasuan, hilabete bakoitzeko 10a edo 25a edo egun horien osteko lehenengo egun balioduna eta hurrengo hiru egun baliodunak.
 - d) Ordainketa-gerorapenen eta -zatikapenen kasuan, hilabete bakoitzeko 25a edo egun horren osteko lehenengo egun balioduna eta hurrengo hiru egun baliodunak.

2. Helbideratzeen tramitazioa dela-eta zorra ezin bada zordundu aurreko zenbakian adierazitako epeetan, beste egun batean zorduntzeko baimena eman ahal izango du Ogasun eta Finantzen foru diputatuak.

3. Ordainketa egin behar duenak zorraren zenbatekoa besteko saldoa edo gehiago eduki behar du helbideratze-kontuan 1. zenbakian aipatzen diren epeen barruan.

Zordunketa egiteko datan helbideratze-kontuan behar besteko saldoa egon ezean, zorra ordaindu gabetzat joko da.

4. Kontuan zordunketarik egiten ez bada edo zorduntzea artikuluko honetan ezarritako epetik kanpo egiten bada, ordainketa egin behar duenari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, ordainketa egin behar duenari ez zaio arrazoi horregatik errekarurik, berandutza- korriturik edo zehapenik ezarriko; erakunde arduradunari ordainketa atzeratzeagatik likidatu behar zaizkion berandutza-korrituen kalterik gabe.

15. artikulua. Aldizka mugaeguneratzen eta taldeka jakinarazten diren zorrak ordaintzea.

1. Aldizka mugaeguneratzen eta taldeka jakinarazten diren zorrak borondatezko epealdian sartzeko epea irailaren 10etik urriaren 10era edo (berau egun baliogabea bada) honen hurrengo egun baliadunera bitartekoa izango da.

2. Aparteko inguruabarrak gertatzen direnean, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak aurreko idatz-zatian adierazi diren epealdiak aldatu ahal izango ditu.

3. Zerga-administrazioak errolda edo matrikularekin batera jakinaraziko du aldizka mugaeguneratzen eta taldeka jakinarazten diren zorrak borondatezko epealdian ordaintzeko epea; gainera, azalduko du, ordainketa osoa epe horren barruan egiten ez bada ordaindu gabe dagoen zorraren ordainarazpen-aldia hasiko dela.

16. artikulua. Efektu tinbredunen bidezko ordainketa.

1. Efektu tinbredunak dira:

a) Tinbredun paper arrunta.

b) Tinbredun agiri bereziak.

c) Tinbre mugikorak.

2. Efektu tinbredunak ordainketarako baliabide bezala erabiliko dira soilik horrela zehazten denean, baldin eta zorrak ordaintzeko borondatezko epealdian badaude. voluntario de pago.

3. Efektu tinbredunen erabilera, itxura, irarketa, ikusonespena, deuseztapena, truke-baldintza eta gainerako ezaugarriak ordainbide hori onartzen duten zuzenbide publikoko zergak eta gainerako baliabideak araupetzen dituzten xedapenek eta araudi honetakoek eraenduko dituzte.

4. Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru agindu bidez sortu eta aldatuko dira efektu tinbredunak. Efektuetan zenbakiak hurrenkeran jarrita egongo dira, diputatuak finkatzen duen kopurua baino txikiagoak direnean izan ezik.

5. Zuzenbide publikoko zergak eta gainerako baliabideak araupetzen dituzten arauak aldatzen direlako efektu tinbredunak desagokiak direnean, zirkulaziotik kendu eta deuseztatzen direla bermatuko da.

6. Zirkulaziotik kendutako efektuak dituztenek horien truke indarrean daudenak lortu ahal izango dituzte, baldin eta erabili direlako aztarnarik ez badute.

Era berean, tinbredun paper arrunta edo tinbredun agiri bereziak ezin badira erabili idazketan okerrak daudelako edo beste arrazoirenen bategatik, paper edo agiri horiek dituztenek trukean beste batzuk lortu ahal izango dituzte, baldin eta horietan sinadurarik, izenpekorik edo ondoreak izan direlako beste aztarnarik ez badute.

17. artikulua. Gauzaz ordaintzea.

1. Aparteko kasuetan, zerga-zorrak eta zuzenbide publikoko gainerakoak ordaintzeko ondasunak edo eskubideak onartuko dira.
2. Ordaintzeko borondatezko epealdian edo ordainarazpen-aldian, zorrak ondasun edo eskubideen bidez ordaindu nahi dituen zergapekoak Zerga-bilketako Zuzendariordeztari idatziz egingo dio eskabidea; eskabidearekin batera, gainera, eskaintzen diren ondasunen deskripzio zehatza eta balorazioa aurkeztuko ditu.

Zorrak ordaintzeko asmoz ondasunak edo eskubideak eskaintzen dituelako eskabidea eta aurreko paragrafoan aipatutako agiriak aurkezten badira ordaintzeko borondatezko epealdiaren barruan, ez da ordainarazpen-aldia hasiko; alabaina, hori gorabehera bidezkoak diren berandutzako korrituak sortuko dira. Horrez gain, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 26. artikuluko 9. idatz-zatian xedatutakoa ere beteko da.

Zorren ordainean ondasunak edo eskubideak emateko eskabidea Zergei buruzko Foru Arauko 60. artikuluko 3. zenbakian ezarritako epea amaitu baino lehen aurkezten denean, ez da egingo zordunaren ondarearen kontrako exekuziorik eta errekaru exekutiboa eskatu ahal izango zaio.

Enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakia hartzeko den administrazio-egintza ordaintzera behartuta dagoenari jakinarazten zaion unera arte aurkeztu ahal izango da ordainarazpen-aldiko eskabidea, eta ez du ondorio etengarririk eragingo; hala ere, Zerga-bilketako Zuzendariordeztak erabaki dezake enbargatutako ondasunak besterentzeko jarduketak prozedura amaitu arte etetea.

3. Foru arau bidez kontrakoa ezartzen ez bada, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak izango du zorra ordaintzeko eskaintzen diren ondasunak edo eskubideak onartzeko edo ez onartzeko zuzentzarako eskumena; horretarako, bada, bidezkotzat jotzen diren txostenak eskatu ahal izango ditu eta ondasunak beharrezkoa den denborarako emateko eskatu, hauek balora daitezten edo eskaintza onartu arte zain daitezten.
4. Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak gehienez sei hilabetetan ebatziko du eskabidea. Epealdi horretan ebazpenik eman ez bada, eskabidea gaitziritzizat joko da.
5. Eskabidea onartzen bada, berriz, ondasunak edo eskubideak bi hilabeteko epean eman edo eskura jarri beharko zaizkio Zerga Administrazioari, eskabidea onartzeko erabakia jakinarazten denetik zenbatuta. Epe hori bidezko arrazoiengatik luzatu ahal izango da.

Eskabidea onartzearen ondorioz, ondasunak edo eskubideak ematen edo eskura jartzen diren unetik zorrak ordainduko dira. Dena den, borondatezko aldian ordaintzeko epea amaitzen denetik ondasunak eman edo eskura jarri diren arteko berandutza-korrituak sortuko dira, baina eskabidea onartzeko erabaki horretan ezar daiteke ondasuna berandutza-korrituak azkentzeko ere erabiltzea, ondasun horrek denak ordaintzeko beste balio badu behintzat.

Ondasunak aipatu epealdian ematen edo eskura jartzen ez badira, erabakia bertan behera geldituko da eta berehala hasiko zaio ordainarazpen-aldiari (eskabidea borondatez ordaintzeko epealdian aurkeztu bazen).

6. Zerga-administrazioa ez badago ordaintzera behartuta dagoenak eman duen balorazioarekin ados, gauzaz ordaintzeko onartzen den balioa zein den jakinaraziko dio behartuari. Honek, hamar egun izango ditu ados dagoen azaltzeko. Gauzaz ordaintzeari

uko egiten diola ulertuko da balorazioa aipatutako epean onartzen ez duenean, eta orduan ebazpen ukatzailea emango da.

7. Ebazpen ukatzailea ematen bada edo zorraren zenbatekoarena baino balio txikiagoa onartzeko ebazpena ematen bada hurrengo ondoreak izango dira:
 - a) Eskabidea borondatez ordaintzeko epealdian aurkeztu bada, ordaintzera behartuta dagoenak ordaindu gabe daukan zorra ordainduko du, baita ordaintzeko borondatezko epealdia amaitu denetik ukatzeari buruzko ebazpena eman arte sortutako berandutza-korrituak ere. Horiek guztiak ordaintzeko hilabete izango du, jakinarazpena jasotzen duenetik zenbatzen hasita. Epealdia amaitzean zorra ordaindu ez bada, ordainarazpen-aldiari emango zaio hasiera.
 - b) Eskabidea ordainarazpen-aldian aurkeztu bada, ordura arte etenda egon diren enbargatutako ondasunak besterentzeko jarduketei berriz ekingo zaie.
8. Ordaintzeko konpromisodun akta batetik datorren zenbatekoa gauzaz ordaindu nahi bada, akta hori sinatu aurretik egin behar da horretarako eskaria; horrela, eten egingo da ekainaren 21eko 99/2005 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Bizkaiko Lurralde Historikoko Zerga-ikuskapenaren Araudiko 43. artikuluko 1. paragrafoan ezartzen denaren arabera eratutako gordailuaren aplikazioa, aurkeztutako eskaria ebatzi bitartean.

Gauzako ordainketarako eskaera ukatuz gero, aurretik eratutako gordailua zor den zenbatekoa kitatzeko erabiliko da, eta aplikatu behar izan zen egunetik aurrera izango ditu ondorioak, gauzako ordainketa egiteko eskaririk ez badago.

Gauzako ordainketarako eskaera onartuz gero, ez da berandutzako interesik eskatuko ondasuna eman arte igarotzen den denboragatik, eratutako gordailua berehala itzuliko da, eta zergapekoaren aldeko berandutzako interesik ere ez da sortuko.

18. artikulua. Zainpeketa.

1. Ordaintzera behartuta daudenek zorraren zenbateko osoa edo zati bat eta kostuak eskudirutan zainpetu ahal izango dituzte Foru Diruzaintzan, hurrengo kasuetan:
 - a) Bidezko erreklamazioak edo errekurtsioak jartzen direnean.
 - b) Eskudun zerga-bilketako organoak edo ordainketa jasotzeko baimena duen erakundeak bidegabe onartu ez dituztenean edo ezinbesteko arrazoia dela medio ezin onartu izan duenean.
 - c) Ogasun eta Finantza Saileko foru agindu bidez arautzen diren aparteko kasuetan ezartzen denean.
2. Aurreko idatz-zatiko a) letran ezarritakoari dagokionez, zainpeketak eten egingo du aurkaratutako egintzaren zergak biltzeko prozedura, egin den egunetik bertatik.
3. Aurreko idatz-zatiko b) letran ezarritakoari dagokionez, zainpeketak ordainketaren askatze-ondoreak izango ditu, egin den egunetik eta zainpetutako zenbatekoagatik.

19. artikulua. Ordainketaren frogagiriak eta ziurtagiriak.

1. Araudi honetan xedatutakoaren arabera zorra ordaintzen duenak egiten duen ordainketaren frogagiria eman dakion eskubidea edukiko du.
2. Eskudirutako ordainketen frogagiriak ondokoak izango dira, kasuan kasukoa:
 - a) Eskudun erakundeek onetsi edo eman dituzten eta ordainketa jasotzeko baimena duten erakundeek, organoek edo pertsonak baliozkotutako agiriak.

- b) Sarrera egin dela benetakotzen duten ziurtagiriak.
 - c) Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak foru agindu bidez beren beregi ordainketa-frogagiriaren izaera ematen dion beste edozein agiri.
3. Eskudiruko ordainketen frogagiri guztiek adierazi beharko dituzte, gutxienez, ondoko inguruabar hauek:
- a) Ordaintzera behartuaren izen-deiturak, sozietatearen izena edo izendura, identifikazio fiskaleko zenbakia, herria eta helbidea.
 - b) Zorraren kontzeptua eta zenbatekoa, eta zein epealditakoa den. Eta zorraren identifikazio-erreferentzia, Zerga-administrazioan horrela jasotzen denean.
 - c) Kobrantza-data.
 - d) Frogagiria luzatzen duen organoa, pertsona edo erakundea.

Ordaintzera behartuta dagoena ez den pertsona batek ordaintzen badu zorra, ondasun edo eskubideren bat enbargatu delako edo arautegian jasotako beste arrazoiren bat eman delako, frogagirian sarrera egiten duen pertsona nor den ere adieraziko da, honek hala eskatzen badu.

- 4. Efektu tinbredunak erabiltzen direnean, efektuak berak, behar bezala deuseztatu ostean, ordainketaren frogagiri dira.
- 5. Gauzaz ordaintzen denean, eskudun organoak ondasunak edo eskubideak onartzeko hartzen duen erabakia izango da frogagiria; baina, betiere, erabaki horrekin batera ondasunak edo eskubideak benetan eman edo eskura jarri direla egiaztatzen duen akta, eskritura publikoa edo ordainagiria eduki beharko da.
- 6. Ordaintzera behartuak egiten duen ordainketa bidezkoitzen duen ziurtagiria eskatu ahal izango dio Administrazioari, eta honek ziurtagiria egin beharko du.

20. artikulua. Zerga bateraezinen eta beste administrazio batean egindako sarreren kasuan nola jardun.

- 1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 165. artikuluko 8. idatz-zatian xedatutakoarekin bat etorriz, zerga-zorra beste administrazio bati ordaintzen zaionean zergapekoari egindako zerga-bilketa prozedura gehienez 12 hilabetez etengo da, osorik edo zati batean, inolako bermerik jarri gabe.

Zergadunak agiri bidez frogatu beharko du zerga-zorra beste administrazio batean sartu duela, eta sartutako kopuruaren intsuldaketaren eskabidea aurkeztu beharko du.

Zergapekoaren eskutik kanpo dauden aparteko inguruabarrak direla medio zerga-zorra ezin bada sartu idatz-zati honetan ezarritako gehieneko epean, Administrazioak luzatu egin ahal izango du.

- 2. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 165. artikuluko 7. idatz-zatian araututako balizkoetan, Foru Administrazioak egindako likidazioa eten duenetan, bateraezinak diren bi zergetatik bidezkoa dena erabaki ondoren, honelaxe jardungo da:
 - a) Hasieran egindako likidazioa bidezkoa bada, eskudun organoak etendako likidazioa baliogabetuko du.
 - b) Ordaindutako lehenengo zerga bidegabekoa bada, erabakitako etetea kendu egingo da.

3. Zorra bidegabe sartu den administrazioak Zerga-administrazioari itsuldatzen badio zor hori, egindako sarreraren benetako data aurrekoan egindakoa izango da.

II. ATALA

ORDAINKETAREN GERORAPENA ETA ZATIKAPENA

21. artikulua. Gerorapena eta zatikapena.

1. Zerga bakoitzari eta zuzenbide publikoko gainerako sarrerei buruzko arautegian xedatutakoa gorabehera, zorren ordainketa behartuek eskatuta geroratu edo zatikatu ahal izango da, hala borondatezko epealdian nola ordainarazpidekoan, beraien egoera ekonomiko-finantzarioak, Zerga-administrazioak zuhurtziaz arakotasunez aintzat hartuta, iragankorki haren ordainketa gauzatzea eragozten dienean.
2. Ordainketaren zatikapena, gerorapenaren modalitatea denez gero, honi aplika dakizkiokeen arauak eraenduko dute, berariaz araupeturik ez daudenean.
3. Ordainketa geroratzeko eskabidea tramitatzeko ezinbestekoa da eskabide hori ondasunak besterentzeko erabakia zordunari jakinarazi aurretik aurkeztea.

22. artikulua. Salbuespenezko gerorapenak eta zatikapenak.

Zorra ordaintzeko betebeharra eragozten duten salbuespenezko inguruabarrak edo herri intereseko arrazoiak daudenean, Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru agindu bidez, zorrak araudi honetan ezarritakoak ez diren baldintza eta bermeekin sartzea baimendu ahal izango da.

Zenbait zor geroratzeko salbuespenezko baldintzak zor horiek zehazten dituzten foru aginduen bidez arautuko dira, eta aginduotan ezartzen ez denerako, araudi honetan eta gainerako erregelamenduzko xedapenetan ezarritakoa beteko da.

23. artikulua. Eskumena.

Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak zehaztuko du foru agindu bidez kasu bakoitzean gerorapen-eskabideak ebazteko eskudun den organoa, muga kualitatibo eta kuantitatiboak edo bermeen izaera aintzat hartuta.

24. artikulua. Eskabidea.

1. Gerorapen-eskabidea Zerga-bilketa Zerbitzura bidali behar da eta bertan datu hauek adierazi behar dira:
 - a) Eskatzailearen izen-deiturak, sozietatearen izena, identifikazio fiskaleko zenbakia, eskatzailearen eta, halakorik badago, haren ordezkariaren zerga-egoitza.
 - b) Geroratzeko eskatzen den likidazioaren edo autolikidazioaren identifikazioa; hauek adierazi behar dira: zenbatekoa, eredia, ekitaldia eta epea.
 - c) Gerorapen-eskabidearen zioak. Honekin batera, gainera, eskabidea lagun dezaketen agiriak edo frogagiriak aurkez daitezke.
 - d) Proposatutako ordainketa-plana, amortizazio-epeak adierazita.
 - e) Eskaintzen den bermea, araudi honetako 29. artikuluan bermeak ez eskatzeaz eta hartatik askatzeaz xedaturik dagoenaren kalterik gabe.
 - f) Epeak kobratzeko banku-helbideratzearen agindua; zordunketa egin behar duen zerga-bilketako erakunde laguntzailean zabalduetako kontuaren IBAN kodea adierazi behar da. Helbideratze- kontu bakarra erabiliko da geroratutako eta/edo zatikatutako zor

guztietarako. Kontu hori aldatzeko, eskabidea bidali beharko da epea amaitu baino hamabost egun lehenago, gutxienez.

- g) Tokia, eguna eta sinadura.
 - h) Behar denean, Zerga-administrazioak ordezkari frogatzeko eskatzen dituen agiriak.
2. Kreditu-erakundearen edo elkarrekiko berme-sozietatearen abal solidarioa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria eskaintzen bada, eskabidearekin batera erakundeak gerorapena emanez gero beharrezko abala formalizatzeko berariazko konpromiso ezeztazina ere aurkeztu behar da.
 3. Aurreko zenbakian aipatutakoez bestelako bermeak eskaintzen direnean, dokumentazio edo informazio hau ere aurkeztu behar da:
 - a) Ondasunaren identifikazioa, beharrezkoak diren erreferentziak adierazita, eta jabetza-tituluaren, eskrituraren, fakturaren edo jabetza egiaztatzen duen agiriaren kopia.
 - b) Berme gisa eskainitako ondasunen balorazioa, enpresa edo profesional espezializatu eta independenteek egindakoa. Dagokion elkargo profesionalaren oniritzia izan beharko du. Esleitu beharreko gutxieneko balioa ezarrita duten ondasunen kasuan, Zerga Administrazioak finkatutako balioa onartuko da balorazio gisa.
 - c) Jabetzaren Erregistroak emandako kargei buruzko ziurtagiri eguneratua eta inskribatutako bermea duten zorretan egun eska daitekeen zenbatekoari buruz hartzekodunek egindako ziurtagiriak.
 4. Berme gisa eskainitako ondasuna edo ondasunak ezin izango dira beste batzuekin ordeztu, arrazoitutako salbuespenetan izan ezik. Zerga-bilketako Zuzendariordeak ebatziko ditu egoera horiek.
 5. Bermearen lekape osoa edo partziala eskatzen bada, agiri hauek ere aurkeztu behar ditu eskatzaileak:
 - a) Zergapekoaren adierazpena, ondasunik batere ez duela edo bermerako emandakoez beste ondasunik ez duela agertzen duena. Hala denean, ondasun gabezia hori Sozietateen gaineko Zergari buruzko arautegiaren arabera loturik dauden pertsona fisiko eta juridiko guztiei dagokiela ulertuko da.
 - b) Azken hiru ekitaldietako kontuak eta auditoretzaren txostena, badago.
 - c) Bideragarritasun-plana, badago, eta eskaturiko gerorapena bete daitekeela sustatzeko ekonomiaren, finantzen edo ondarearen ikuspegitik garrantzitsutzat jotzen den gainerako informazio guztia.
 - d) Eskatzaileak berak nahi dituen agiri edo frogagiri guztiak aurkez ditzake eskabidearen alde egiteko.

24 bis artikulua. Geroratzeko eskabideak ez onartzea.

1. Gerorapen-eskabideak ez dira onartuko kasu hauetan:
 - a) Zorra autolikidazio bidez aitortu behar denean, autolikidazio hori aurretiaz aurkeztu ez bada edo gerorapen-eskabidearekin batera aurkeztu ez bada.
 - b) Geroratu edo eten ez diren beste zor batzuk daudenean ordainarazpen-aldian.
 - c) Gerorapen-eskabidearen xede den zorra lehenago ere geroratu denean eta eraginkortasuna galdu duenean, gerorapen-erabakian ezarritako baldintzetakoren bat behin baino gehiagotan ez betetzeagatik.

- d) Konkurtsoei buruzko legeriaren arabera masaren kontrako zortzat jotako zorrak geroratzeko eskabideak direnean.
 - e) Egiaztapen- eta ikerketa-prozedura batean sartuta egon diren autolikidazioak direnean, prozedura hori etenda badago erruduntasun- testigantza jurisdikzio eskudunari igorri zaiolako edo espedientea Fiskaltzari bidali zaiolako, Zigor Kodeko 305. artikuluan araututako egoeratako bat emateagatik, betiere geroratzeko edo zatikatzeko eskabidea egiaztapen- eta ikerketa-prozedura horretan sartutako kontzeptu eta aldiei buruzkoa bada.
2. Ez dira onartuko, ezta, araudi honetako 24. artikuluan eskatutako baldintzak betetzen ez dituzten eskabideak, interesdunari errekerimendua egin ondoren aginduzkoak diren dokumentuak zuzentzeko edo aurkezteko. Horretarako hamar eguneko epea emango zaio.
 3. Eskabidea onartzen ez bada, gerorapen-eskabidea ez aurkeztutzat joko da, ondorio guztietarako.

25. artikulua. Zorrak geroratzeko eskabidearen ondoreak.

1. Ordainketa geroratzeko eskabidea borondatez ordaintzeko epealdian aurkezten bada eta epealdi horretan eskabidea ebazten ez bada, ordainarazpen-aldiaren hasiera eten egingo da; nolahi ere, bidezkotzat jotzen diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.
2. Ordainketa geroratzeko eskabidea ordainarazpen-aldian aurkezten bada, zergak biltzeko prozedura ez da etengo. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 3. idatz-zatian ezarri den epea amaitu baino lehen aurkezten bada eskabidea, ez zaio ekingo zordunaren ondarearen kontrako derrigorrezko betearazpenari eta betearazpideko errekarua eskatuko da.

26. artikulua. Bermeak.

1. Eskatzaileak bermea eman behar du; hain zuzen ere kreditu-erakunde edo elkarrekiko berme-sozietate baten abal solidarioa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria.
2. Abal edo ziurtagiri hori lortzerik ez badago edo horrekin enpresaren bideragarritasuna arrisku larrian jartzen bada, ondoko bermeetariko bat onartu ahal izango da:
 - Alde bateko ondasun higiezinaren gaineko hipoteka.
 - Alde bateko ondasun higikorren gaineko hipoteka.
 - Bahia, alde bateko lekualdaketarekin zein halakorik gabe.
 - Nahikotzat jotzen den beste edozein.
3. ...

27. artikulua. Bermearen zenbatekoa.

1. Bermeak ordaindu gabe dagoen kuotaren edo zehapenaren zenbatekoa gehi zenbateko horren %20 estali beharko du, premiamendu-errekargua dagoeneko sortuta dagoenean eta ordaindu gabeko zenbatekoa handiagoa denean izan ezik. Kasu horretan, zenbateko hori gehi %5 eskatuko da, kostuengatik. Eska daitezkeen berandutza-korritu guztiak ere estali beharko ditu bermeak (onartzen den gerorapenari dagozkionak barne). Hurrengo bi zenbakietan ezarritakoa salbuespen izango da.
2. Bermea kreditu-erakundearen edo elkarrekiko berme-sozietatearen abal solidarioa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria bada, eta zorra borondatez ordaintzeko epean badago, soilik bermatu beharko da ordaindu gabe dagoen kuotaren edo zehapenaren zenbatekoa gehi

zenbateko horren %5, errekaru exekutibo gisa, eta onartutako gerorapenari dagokionez eskatu ahal diren berandutza-korritu guztiak ere gehituko dira, urte biko mugarekin.

3. Bermea aurreko idatz-zatian ezarritakoaz bestelakoa bada eta gerorapena bost urtetik gorakoa bada, bost urteko berandutza-korrituen zenbatekoa soilik bermatu beharko da.
4. Zatikapenetan, epe bakoitzeko berme partziala jar daiteke. Horrela izanez gero, berme bakoitzak berari dagokion zatiaren zenbatekoak estaliko ditu, aurreko idatz-zatien arabera.
5. Bermearen zenbatekoa zehazteko, eta ez beste ezertarako, berandutza-korrituen oinarri gerorapena ematen denean indarrean dagoena izango da.

28. artikulua. Bermea formalizatzea.

1. Bermea emate-erabakia jakinarazi eta hilabetean formalizatu behar da; erabakiak ez du ondorerik izango bermea jarri ezean. Interesdunek eskabide arrazoitua aurkeztuta, bermeak onartzeko eskumena duen organoak epealdi hori luzatu ahal izango du, hiru hilabetera gehienez ere, epealdian bermea formalizatzea eragozten duten zioak daudela frogatzen bada.

Eratzeko erregistroko inskripzioa behar duten bermeak inskripzio hori dagokion erregistroan aurkezten denean joko dira formalizatutzat, geroago inskripzioa atzera botatzen ez bada.

2. Epealdi horietan bermea formalizatzen ez bada, emate-erabakia ondorerik gabe geratuko da eta araudi honetako 32. artikuluan ezarritako ondoreak gertatuko dira.
3. Bermeak zor guztia ordaindu dela egiaztatutakoan askatuko dira. Berme partzial bakoitza berak bermatzen duen zorra ordaindutakoan askatu ahal izango da.
4. Lege Aholkularitza Zerbitzuak ebatziko du bermeak juridikoki eta ekonomikoki nahiko diren.
5. Araudi honetako 26. artikuluko 2. idatz-zatian ezartzen diren bermeak onartzeko, ordeztzeko eta ezeztatzeko eskumena Zerga-bilketako Zuzendariordezako titularrak du.

29. artikulua. Bermerik aurkeztu beharrik ez egotea eta bermeen lekapena.

1. Oro har, zorrak geroratu nahi dituzten zordunei ez zaie eskatuko bermea ordaindu gabeko zorren guztirako zenbatekoa 10.000 euroko baino gehiago ez bada. Nolanahi ere, Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak foru agindu bidez aldatu ahal izango du zenbateko hori.

Gehieneko zenbatekoa 20.000 eurokoa izango da zorra ordaintzeko epealdi luzaezina 36 hilabetetik gorakoa ez denean.

2. Borondatezko epealdian dauden zorren ordainketa geroratzeko ez da bermerik jarri beharko, baldin eta zergadunak bermatu gabeko beste zorrik ez badauka eta ondokoak betetzen badira:

- Zorra 250.000 euro baino gehiago ez izatea eta ordaintzeko epealdi luzaezina sei hilekoa izatea.
- Zorra 150.000 euro baino gehiago ez izatea eta ordaintzeko epealdi luzaezina hamabi hilekoa izatea.

Bermea ipini beharrik ez edukitzeko baldintza hau ezarri ahal izango zaio zordunari: eskatutako gerorapenari aurre egiteko kaudimena edukitzea. Zerga-bilketa Zerbitzuko buruzak ebatziko du zordunak kaudimena daukan edo ez.

3. Araudi honetako 24. artikuluko 5. zenbakiko a) letran xedatutakoaren arabera aurkeztutako aitorpena aztertuta, Zerga Administrazioa ohartzen bada zordunak ez duela bermerik

jartzeko ondasun edo eskubiderik edo ez duela nahikoa ondasun edo eskubide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak bermetik lekatu ahal izango du zorduna, osorik edo partzialki, kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzekin.

Gerorapena aurreko paragrafoan ezarritako berme-lekapenarekin onartzen bada, egoeraren jarraipena eta kontrola egingo dira, bermea jartzeko ondasun edo eskubiderik ez dagoela edo nahikoa ondasun edo eskubide ez dagoela egiaztatzeko. Nolanahi ere, zordunaren egoerak hobera egiten badu, bere egunean lekatutako bermeak jarri beharko ditu zordunak.

Zehazki, gerorapenaren indarraldian mozkinak banatzen badira edo kapitala itzultzen bada, zordunak bermea eratu beharko du Zerga Administrazioarekin bete gabe dituen betebeharrak ordaintzeko. Ordainketa berme-lekapenarekin geroratzen zaion zordunak, gerorapenaren epean, zorra bermatzea ahalbidetzen dioen edozein aldaketa —ekonomikoa edo ondarekoa— jakinarazi beharko dio Zerga Administrazioari.

4. Lurralde administrazio publikoen, erakunde autonomoen eta administrazio horien zuzenbide pribatuko erakundeen gerorapenetan ez da eskatuko bermerik, ez eta erakunde publikoek %50etik gora duten mankomunitate eta partzuergoetan ere.
5. Bermerik jarri behar ez izateak eta bermetik lekatzeak ez du ekarriko gerorapena onartu aurretik ezarritako enbargoak eta/edo trabak kentzea.

30. artikulua. Izapidetzea.

...

31. artikulua. Ebazpena.

1. Geroratze-eskaerak bi hilabeteko epean ebatziko dira gehienez ere.

Eskatzaileari agiri edo informazio gehiago aurkezteko eskatzen bazaio, ebazteko epea izapide horrek irauten duen beste luzatuko da.

Gehieneko epea iragan eta ebazpenik eman ez bada, eskaera ukatutzat hartu ahal izango da.

2. Gerorapenak emateko ebazpenetan ezarriko dira haien eraginkorrak izateko betekizunak. Gerorapena eskabidean adierazitako epeetarako eta eskabidean eskatutakoaren gainetik ez dauden zenbatekoetan onartzen bada, erabakia jakinarazten den eguna baino lehen hasi ahal izango da epeak kobratzen, helbideratze- kontuan egindako karguen bidez.
3. Ebazpena ukapenezkoa bada eta geroratzea borondatez ordaintzeko epealdian eskatzen bada, zorra Zergei Buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran ezarritako epeetan ordaindu beharko da.

Gerorapena Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 3. idatz-zatian ezartzen den epearen barruan eskatu bada, bost egun izango ditu zorra eta betearazpideko errekarua ordain ditzan. Epealdi honetan ezin izango da premiamendu-errekargurik eskatu.

4. Espedientea izapidetzen ari den bitartean zorra ordaintzen bada, gerorapen-eskabideari uko egiten zaiola ulertuko da, sartutako zatia dagokionez, eta dagozkion berandutza-korrituak eskatuko dira.
5. Bermearen balorazioaren zehaztapena eta egiaztapena atzeratu egin ahal direla uste bada, gerorapena onartu ahal izango da, baldin eta bermea behar bestekoa bada.
6. Zor beragatik zergapeko solidario bat baino gehiago badago, haietako bati emandako gerorapenak inguruabar horrek eragindako zergapekoarentzat baino ez ditu izango

ondorioak, Zergei buruzko Foru Arauko 34. artikuluko 5. zenbakian aipatzen diren zergapekoak direnean izan ezik.

Hala ere, zorra geroratzea onesten zaion zergapekoak hala eskatzen bada eta ordainketa behar adina bermatuta dagoenean, Zerga- bilketako Zerbitzuko buruak zerga-bilketako prozedura etetea erabaki dezake gainerako zergapeko solidario guztiei edo batzuei dagokienez.

7. Zergapekoaren konkurtsoa adierazten bada, ordainketa geroratzeko hartutako erabaki guztiek eraginkortasuna galduko dute eta izapidetzen ari diren gerorapen-prozedurak amaitu egingo dira.
8. Zergapeko bati geroratutako zorren kobrantza-kudeaketa banku-helbideratzeen bidez egingo da.
9. Zorrak eskatzeko epeak kasu hauetan aldatu ahal izango dira: zorrak aurretiaz kitatzen badira edo epeetako zenbatekoak aldatzen badira.

32. artikulua. Kitapen aurreratua.

Onetsitako ordainketa-geroratzea edo -zaticapena erabat edo partzialki kitatuko da, modu aurreratuan:

- a) Zordunak eskatuta; horrelakoetan, geratzen zaion zorrari dagokionez, amortizazio-epealdia laburtzea edo epeetan ordaindu beharreko kopurua txikitzea hauta dezake, Zerga-bilketa Zerbitzuari jakinarazi ondoren. Jakinarazi ezean, amortizazio-epealdia laburtuko da, kopurua bere hartan utzita.
- b) Ofiziozko konpentsazio bidez —Zerga Administrazioak zergapeko berari aitortutako edozein krediturekin—, diru-sarrerak itzultzeagatik edo beste edozein arrazoiengatik, salbu eta geroratutako zorrak ordaintzeko borondatezko aldian eta behar bezala bermatuta daudenean. Izan ere, kasu horretan, geroratzearen amortizazio- aldia murriztuko da.

Ogasun eta Finantza Saileko diputatuak letra honetan xedatutakoa aplikatzeko salbuespenak ezar ditzake, betiere foru agindu bidez.

33. artikulua. Korrituen kalkulua.

1. Gerorapena ematen bada, berandutza-korrituak kalkulatu eta eskatuko dira borondatez ordaintzeko epealdiaren mugaeguna eta ematen den epearen mugaegunaren bitarteko denborari dagokionez, artikuluko honetako 4. idatz-zatian xedatutakoa gorabehera.
2. Zaticapena ematen bada, honela kalkulatu dira berandutza-korrituak:
 - a) Lehenengo epeari dagokionez, aurreko idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko da.
 - b) Hurrengo epeetarako, bakoitzeko korrituak ordaindu gabe dagoen zorraren gainean kalkulatu dira, aurreko epearen mugaegunaren eta dagokionaren arteko denboraldia kontuan hartuta.
3. Zorrak geroratzea edo zatikatzea ukatzen bada, baina eskaera egin bada edo borondatezko epean edo ordainarazpenaldian egin bada, Zergei buruzko Foru Arauko 60. artikuluko 3. zenbakian ezarritako epearen barruan, borondatezko epearen mugaegunetik ezezko ebazpena eman den egunera arte sortutako berandutza-korrituak kalkulatu dira.
4. Zorrak geroratzeko eskabidea ebatzi baino lehen ordaintzen badira eta eskaera borondatezko epean egin bada, borondatezko epearen muga-egunetik zorrak ordaindu diren egunera arte sortutako berandutza-korrituak kalkulatu dira.

5. Geroratzearen ziozko korrituen zenbatekoa urteko abenduan eskatuko da beranduenik ere, sortzapenaren irizpidea aplikatuta.

34. artikulua. Geroratu edo zatikatu diren zorrak ez ordaintzearen ondorioak.

1. Gerorapenetan, zorra ez bada osorik ordaintzen horretarako emandako epean, honela jokatu da, gerorapenean sartutako zorrak geroratzeko eskabideen arabera:
 - a) Zorren gerorapena borondatezko epean eskatu bada, ordainarazpen-aldia epe hori amaitu eta hurrengo egunean hasiko da eta premiamendu-probidentzia emango da ordaindu ez den zorra dela eta, bestelako izapiderik gabe.
 - b) Zorren gerorapena ordainarazpen-aldian eskatu bada, premiamendu-prozedurak aurrera jarraituko du, eta une horretatik gauzatu ahal izango da bermea lehenbizi atxikitzeo aukera, Zergei buruzko Foru Arauko 172. artikuluan xedatutakoaren arabera.
2. Zatikapenetan, epe bi ordaindu gabe geratu badira mugaegunerako, ordaintzeko dauden gainerako guztiak muga-eguneratuzat joko dira eta aurreko zenbakian ezarritako eran jardungo da.

Ez da beharrezkoa izango bi epe ez betetzea zatikapena ondoriorik gabe uzteko, kasu hauetan: batetik, epe horietako bat betetzen ez denean eta Zerga Administrazioak hori ordaintzeko errekerimendua egin arren Zergei buruzko Foru Arauko 60. artikuluko 1. zenbakiko b) letran ezarritako epean ordaindu ez bada, eta, bestetik, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren araudiak zerga horren kuotaren ordainketa zatikaturako ezartzen dituen epeetan ordaindu ez bada.

3. Beste zorren bat badago ordainarazpen-aldian baina zor hori geroratzeko edo zatikatzeko eskabidea aurkeztu ez bada edo epea eten ez bada, ondoriorik gabe geratuko dira zordunari onartutako ordainketa-gerorapen edo -zatikatzeko guztiak eta zorrak berehala eskatu ahal izango zaizkio.

III. ATALA KONPENTSAZIOA ETA ZERGEN KONTU KORRONTEA.

35. artikulua. Zor konpentsagarriak eta eskumena.

1. Kapitulu honetan ezarrita dauden kasuetan eta berorren betekizunekin, zerga-bilketaren fasean, hala borondatezkoan nola ordainarazpenekoan, dauden Foru Ogasunarentzako zorrak osorik edo partzialki iraungi ahal izango dira, Foru Ogasunak zordunarentzat aintzatesten dituen kredituekin konpentsatuz.
2. Halaber, aurreko idatz-zatian bildurik ez dauden zorrak konpentsatu ahal izango dira, zerga eta zuzenbide publikodun gainerako baliabideen arau erregulatzailleek aurreikusita dutenean.
3. Diruzaintza Zerbitzuko Burutzak izango du aurreko idatz-zatietan aipatu diren zor eta kredituak, ofizioz edo zordunak eskaturik, konpentsatzeko eskumena, Araudi honetako hurrengo artikuluko 3. idatz-zatiko a) eta b) letretan xedatutakoa salbu.

36. artikulua. Ofiziozko konpentsazioa.

1. Foru Administrazioarentzako zorrak ofizioz konpentsatu ahal izango dira, behin borondatezko epealdian sartzeko epea igaroz gero, baldin eta zorduna Estatua, lurralde izakia, organismo autonomiaduna, Gizarte Segurantzza edo jarduera ordenamendu pribatuak eraendurik ez duen zuzenbide publikodun erakundea bada. Konpentsazio-erabakia erakunde zordunari jakinaraziko zaio.

2. Aurreko idatz-zatian bildurik ez dagoen Foru Administrazioaren zordun bat aldi berean haren hartzekodun bada kreditu aintzatetsi bategatik, borondatezko epealdia igaro ondoren, zorra kredituarekin konpentsatuko da ofizioz, ordainarazpeneko prozeduraren zein fasetan dagoen gorabehera. Konpentsazioa interesatuari jakinaraziko zaio.
3. Hori gorabehera, ofizioz konpentsatuko dira borondatez ordaintzeko epealdian:
 - a) Subjektu pasibo berari dagozkion egiaztapen mugatuko edo ikuskapeneko prozedura beraren ondorioz ordaindu edo itzuli beharreko zenbatekoak. Jarduketa horietatik ondorioztatzen den likidazioa gauzatzeko eskuduna den organoak ofizioz erabakiko du zorren eta kredituen konpentsazioa, horiek iristen diren arte.
 - b) Aurreko likidazio bat ordaindutako zenbatekoan ezeztatua izatearen ondoriozko likidazio berri bat gauzatzetik ondorioztatzen diren ordaindu edo itzuli beharreko zenbatekoak. Likidazio berrian zenbateko egokia konpentsatuko da, eta zergapekoari zenbateko diferentziala zein den jakinaraziko zaio, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 1. idatz-zatiko b) letran ezarritako epeetan ordaindu dezan.
 - c) Bermerik erata ez duten zor geroratuak, Araudi honetako 32. artikuluko b) letrako bigarren paragrafoan xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

37. artikulua. Ordaintzera behartuak eskatutako konpentsazioa.

1. Konpentsazioa eskatzen duen zordunak eskabidea bidali beharko dio Diruzaintza Zerbitzuari, ondoko betekizunekin:
 - a) Ordaintzera behartuaren izen-deiturak, sozietatearen izena edo izendura, zerga-egoitza eta identifikazio fiskaleko zenbakia eta, hala denean, bere ordezkaria den pertsonarenak.
 - b) Konpentsatzeko eskatzen den zorraren identifikazioa, gutxienez: beronen zenbatekoa, kontzeptua eta borondatezko ordainketarako epearen mugaeguna adieraziz. Autolikidazioaren kasuan, konpentsatu nahi den zorraren eredu ofiziala ere aurkeztu behar da, eskabidea telematikoki izapidetu denean izan ezik.
 - c) Eskatzailearen aldeko kredituaren identifikazioa, eta gutxienez: beronen zenbatekoa, kontzeptua eta organo kudeatzailea adieraziz.
 - d) Kreditua beste inori eskualdatu edo eman ez zaiolako beren beregiko adierazpena.
 - e) Tokia, eguna eta eskatzailearen sinadura.
2. Eskabideak, borondatezko aldiaren, aurreko idatz-zatian zehaztutako eskakizunekin eta dokumentuekin, ordainarazpen-aldiaren hasiera etengo du bere izapidetzean konpentsatzea eskaintzen den kreditu-mugara arte. Hori gorabehera, bidezkotzat jotzen diren kautelazko neurriak hartu ahal izango dira.

Eskabidea ordainarazpen-aldian aurkezten bada, zergak biltzeko prozedura ez da etengo. Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 3. idatz-zatian ezarri den epea amaitu baino lehen aurkezten bada, eskabidea izapidetzen dagoen artean ez zaio ekingo zordunaren ondarearen betearazpenari eta betearazpideko errenergua eskatuko da.

3. Diruzaintza Zerbitzuko Burutzak konpentsazioa erabakiko du zergen arloko arautegian eta arautegi zibilean, oro har, edo, hala badagokio, aplikagarria den legeria zehatzean ezarritako betekizunak biltzen direnean, baldin eta ordainarazpenean ofizioz konpentsatzeko zorrik ez badago.

Kompentsazioa ukatu eta hau borondatezko epealdian eskatu bazen, arrazoitua izan beharko den erabakiaren jakinarazpenean ohartarazi egingo zaio eskatzaileari zorrak eta borondatezko epealdiaren amaieratik ebazpen-datara arte sortutako korrituak Zergei

buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 1. idatz-zatiko b) hizkian ezarritako epean ordaindu beharko direla. Epe hori igaro eta ordainketa egin ez bada, premiamendu bidez eskatuko da ordaindu gabeko zorra.

4. Eskabidea aurkezten den egunetik zenbatzen hasi eta hilabeteko epean emango da ebazpena. Eskatzaileari agiri edo informazio gehiago aurkezteko eskatzen bazaio, ebazteko epea izapide horrek irauten duen beste luzatuko da. Epe hori igaro eta ebazpenik eman ez bada, eskabideari gaitziritzi zaiola ulertuko da, ustezko ukapenaren aurkako errekurtsua aurkezteko edo berariazko ebazpena jaso arte egoteko.

38. artikulua. Konpentsazioaren ondoreak.

1. Konpentsazioa erabaki ondoren, zorrak eta kredituak iraungi egingo dira konpentsazioari dagokion zenbatekoari dagokionez.
2. Araudi honetako 36. artikuluko 1. idatz-zatian aipatuta dauden erakunde publikoen zorren konpentsazioa egitekotan, baldin eta kreditua zorra baino txikiagoa bada, kreditua gainditzen duen zorraren zatiagatik jarraikako konpentsazioak erabakiko dira erakunde horientzat gero aintzatetsiko diren kredituekin.
3. Gainerako kasuetan, kreditua zorra baino txikiagoa bada, kreditua gainditzen duen zorraren zatirako zerga-bilketa prozedura gauzatuko da.
4. Baldin eta kreditua zorra baino handiagoa bada, konpentsazioa erabaki ondoren, interesatuari bien arteko aldea ordainduko zaio.

39. artikulua. Zergen kontu korrontea.

1. Zorrak konpentsazio bidez kitatu ahal izango dira, zergen kontu korronte sistema baten bidez, Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru aginduan ezartzen diren eskakizunekin eta baldintzekin.

Zergen kontu korrontearen sistemari heltzeko prozedura hasteko zergapekoak eskabidea egin behar izango du; eskabidea, bada, aurkeztu den egunetik bi hilabetera ebatziko da. Baina eskabidea baztertu egin dela ulertu behar da Zerga-administrazioak aipatu epean berariazko ebazpenik ematen ez badu.

2. Zergen inguruko kontu korronte sistema aplikatzeak xedatuko du sistema horri helduko zaizkion kreditu eta zor guztiak kontuaren likidaziorako konputatu beharko direla, zerga-zorra ordaintzeko epearen mugaegunetik edo zergaren arauditik eratorritako itzulketa egokia erabakitzen den egunetik aurrerako ondorioekin.
3. Idaztoharren xede diren kredituak eta zorrak ezingo dira banaka eskatu zergen kontu korrontea indarrean dagoen bitartean; izan ere, likidazioaren ondoren ondorioztatzen den saldoagatik bakarrik eskatu ahal izango dira.

IV. ATALA HUTSEGINA AITORTZEA ETA ZOR KOBRAEZINA.

40. artikulua. Hutsegina aitortzea eta ondorioak.

1. Hutsegintzat aitortuko dira kaudimengabezia frogatuagatik zerga-bilketako administrazio-prozeduren bidez ordaindu ezin diren zergapekoak.
2. Hutsegitea aitortzeko erabakia Zerga-bilketako Zerbitzuko buruak edo Zerga-bilketa Ikuskatzeko Zerbitzuko buruak hartuko du ordainketa egin behar dutenak hartzekodunen konkurtsoan daudenean, zerbitzuan dauden datuak eta gauzatutako jarduketak ikusi ondoren.

3. Hutsegite osoaren edo partzialaren aitortpenak erantzukizun subsidiarioa dela-eta erantzukizuna beste balizko zergapekoen aurka eramateko espedientea abiarazteko aukera irekiko du; dena den, horrek ez du eragotziko Foru Ogasunak huts egindako zordunaren aurkako ekintza egokiak gauzatzea, zor hori kobratzeko administrazio-ekintza iraungitzen ez den bitartean.
4. Zerga-bilketa Zerbitzuak hutsegite-aitortpena izapidetzean, zerga-erantzuleak dauden ikertu ondoren, beste zergapekorik ez dagoela xedatzen badu, kreditua ezin kobratuzkoa dela aitortzea proposatuko du, hurrengo artikuluan zehaztutako ondoreekin.
5. Zordun baten hutsegite-egoerak, kredituak ezin kobratuzkoak aitortu badira ere, ez du eragotziko inola ere horien ordainketari, birgaitze egokiaren ondoren, eragozpen-xede izan daitezkeen zenbatekoak, konpentsazioaren xede izan daitezkeenak, atzeman diren edo atzeman daitezkeen ondasunen besterentzeen ondorioz eskuratzen direnak edo beste edozein diru-sarrera aplikatzea.
6. Hutsegite-aitortpena, Merkataritza Erregistroan inskribatutako pertsona fisikoei edo elkartei dagokiena, erregistro horretan idatzi ahal izango da, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak igorritako mandamenduaren arabera. Aurrerakoetan, Merkataritza Erregistroak hutsegite-aitortpena izan duten pertsonen edo erakundeen dagokienez inskribatu nahi den edozein egintza jakinaraziko dio aipatu organoari.

41. artikulua. Kreditu kobraezinak.

1. Zordun nagusiak eta, kasuan kasu, erantzule solidario eta subsidiario guztiek hutsegite-aitortpena jaso badute Zerga-bilketako Zuzendariordeak ezin kobratuzko aitortuko du kreditua, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak proposatuta.
2. Ordaintzera behartutako guztien kaudimengabezia dela-eta kobratu ezinezko kreditu aitortu diren zorrak iraungi egingo dira, agindutako epea amaitu ondoren, horietako norbaiti kaudimena gainetorri zaiolako birgaituak izan ez direnean.
3. Kreditu baten ezin kobratuzko aitortpenak kontuetan baja ematea ahalbidetuko du.
4. Zergapeko bat huts egindakotzat aitortu ondoren, aitortpen horren ondoren iraungitzen diren kredituak kobratu ezinezkotzat aitortuko dira, horiek ordaintzera behartutako beste inor ez badago, premiamenduzko probidentzia egokia igortzearen eta jakinaraztearen kaltetan izan gabe.

II. TITULUA ZERGA-BILKETAKO PROZEDURAK

I. KAPITULUA PREMIAMENDU-PROZEDURA

I. ATALA XEDAPEN OROKORRAK

42. artikulua. Premiamendu-prozedura hastea.

Premiamendu-prozedura ordaintzera behartuta dagoenari probidentzia jakinarazten zaionean abiaraziko da, behin Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 3. idatz-zatiak aipatzen duen aldia igaro ondoren.

43. artikulua. Premiamendu-probidentzia.

1. Premiamendu-probidentziak ondorengo hauek jasoko ditu:

- a) Ordaintzera behartuaren izen-deiturak edo sozietatearen izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea.
 - b) Zorraren kontzeptua, zenbatekoa eta epealdia.
 - c) Beren beregi adieraziko da zorra ez dela ordaindu, borondatezko aldi ordaintzeko epea amaitu dela eta berandutza-korrituen sortzapena hasi dela.
 - d) Ordainarazpen errekaruaren likidazioa eta, hala balegokio, korrituena.
 - e) Zorra ordain dezan berariazko agindeia, aipatu errekaruarekin, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 60. artikuluko 3. idatz-zatiak aipatzen duen aparteko epean, edo epeak amaitu ondoren, bitartean ordainketaren geroratzea edo zatikatzea onartu bada.
 - f) Adieraziko da oraindik ordaindu gabe dagoen zergaren zenbateko osoa ordainduko ez balitz, bere ondasunak enbargatuko direla edo eratuta dauden bermeak gauzatuko direla, zorra kobratu ahal izateko, premiamenduzko errekarua, berandutza-korrituak eta prozeduraren kostuak eskatuz.
 - g) Premiamendu-probidentzia zein datatan igortzen den.
2. Premiamendu-probidentziak Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak emango ditu.
 3. Ez da premiamendu-probidentziarik igorriko foru arau edo legez premiamendu-gai ezin izan daitezkeen Foru Administrazioaren aldeko zorreatatik, Estatuaren, autonomi erkidegoen, erakunde autonomoen, udal korporazioen eta beste erakunde publiko batzuen zorreatatik. Balizko horietan Araudi honetako 36. artikuluan ezarritako ofiziotako konpentsazioari buruko araudian xedatutakoa beteko da.
 4. Probidentzia bakar batean premiamenduzko prozedura abiaraztea eta zordunaren ondasunak likidazio edo autolikidazio anitzak hartuko dituen zenbatekoetatik gauzatzea erabaki ahal izango da.

44. artikulua. Premiamendu-probidentzia jakinaraztea.

Premiamendu-probidentzia zordunari jakinaraziko zaio, ondorengoak adieraziz:

- a) Zorra zein epetan eta lekutan ordaindu behar duen.
- b) Geroratzea edo zatikatzea eskatzeko aukera duen.
- c) Etendura indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan eta baldintzetan bakarrik gertatuko dela adierazten duen informazioa.
- d) Erabakiaren aurka jar daitezkeen errekursoak, zein organoren aurrean aurkeztu behar diren eta horiek aurkezteko epea.

45. artikulua. Premiamendu-prozedura etetea.

1. Interesatuak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 169. artikuluko 2. idatz-zatiaren arabera prozedura eten dezakeen baldintzetakoren bat ematen dela frogatzen duenean, jarduketak dagokion erabakia hartu bitartean etenda geratzen direla jakinaraziko zaio.

...

2. Errekurtsoak edo erreklamazio ekonomiko-administratiboak aurkeztearen ondoriozko eteteak Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 10eko 2/2005 Foru Arau Orokorra araupetu duen araudi orokorrean administrazio-bidean ebazteari dagokionez xedatutakoaren arabera arautuko dira.

II. ATALA BERMEEN BETEARAZPENA

46. artikulua. Bermeak betearaztea.

1. Zorra bermaturik bada eta premiamenduzko prozedura abiarazita, Zerga-administrazioak lehenengo eta behin bermea betearazi nahi badu, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 172. artikuluan xedatutakoari jarraiki, ondorengo arau hauek aplikatuko dira:
 - a) Baldin eta bermea abala, fidantza, kauzio-aseguruaren ziurtagiria edo beste berme pertsonalen bat bada, bermatzaileari zorra ordain dezala eskatuko zaio, dagozkion interesekin eta errekaruekin, kopuru bermatuaren ordainmugara arte, eta ordainketa hori araudi honetako 60. artikuluko 3. idatz-zatian ezarri den epean burutu beharko du. Hala egin ezean haren ondasunen aurka jardungo da, ordaintzera behartuaren aurkako ordainarazpeneko titulu bera dela bide, jakinarazpen berri bat beharrezkoa izango ez delarik.
 - b) Baldin eta bermea hipoteka, bahi edo derrigorrezko besterenganatze-gai diren behartuaren ondasun edo eskubideek edota hauen gainean eratzten den gauzako besteren bat bada, izaera bereko edo antzeko ondasun enbargatuaren besterenganatzerako araudi honetan ezartzen den prozeduraren bidezko besterenganatzea egikaritu da.
 - c) Baldin eta bermea zordunaz aparteko pertsona baten ondasun edo eskubideek edota hauen gainean eratzten bada, pertsona horri zor bermatua ordaingabe dagoela jakinaraziko zaio, era batera araudi honen 60. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritako epean aipatu ondasunak edo eskubideak zerga-bilketa organoaren esku jar ditzala eskatzen zaiola, baldin eta zorra ordaintzen ez badu. Epe hori igaro eta ordainketarik egin ez bada, aurreko idatz-zatian aipatzen denaren arabera besterenganatuko dira.
 - d) Baldin eta bermea eskudirutako gordailua bada, araudi honetako 60. artikuluko 3. idatz-zatian ezartzen den epean ordain dezala eskatuko zaio gordailuzainari. Era berean ohartaraziko zaio hori beteko ez balu bere ondasunak eta eskubideak enbargatuko direla, bestelako izapiderik gabe. Gordailuzaina administrazioa bera bada, gordailua zorra kitatzen denean aplikatuko da.
2. Zerga-administrazioaren kredituen berme gisa eraturako hipoteka eta gainerako ondasun-eskubideen ordainarazpena zerga-bilketako organo eskudunak egingo du premiamenduzko prozeduraren bitartez.

Administrazio-ordainarazpena hasten denean, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak ordainarazpen-agindua jakinaraziko dio Jabetzaren Erregistratzaileari, manamendu bikoiztu bidez, jabari eta zamen ziurtagiri egokia egin eta bidal dezan, Judiziamendu Zibilar buruzko Legeko 688. artikuluan ezarritako eduki eta ondorioak jasoz.

Zerga-bilketa organoak ordainarazpen-prozedura hasten dela jakinaraziko dio azken jabari-inkripzioaren arabera dagokion pertsonari, aurretiaz ordainketarako agindeia izan ez badu, eta jabari eta kargen ziurtapenean agertzen diren eta hipoteka eratu ondorengo zama eta eskubide errealeen titular diren pertsonari.

Hala dagokionean, enkante edo lehiaketarako oinarria Araudi honetako 69. artikuluan ezarritakoaren arabera finkatu ahal izango da, eta hipoteka eratzerakoan ondasuna zein prezioan tasatu den kontuan hartu gabe.

III. ATALA ENBARGOAK

47. artikulua. Enbargoen dilijentziak.

1. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60. artikuluaen 3. idatz-zatian ezarritako epea igaro, eta agindutako sarrera egin ez bada, premiamendu-probidentziaren bidez, egokitzen diren ondasun eta eskubideak enbargatuko dira, betiere zorra bermeak gauzatu ez bada.
2. Egitekoa den enbargo bakoitza enbargo dilijentzian dokumentatuko da; dilijentzia batean zergapeko berberaren zor bat baino gehiago pilatu ahalko da, eta Zerga-bilketa Zerbitzuaren Burutzak emango ditu.
3. Enbargoaren ezaugarriek eskatzen dutenean, enbargoa zergapekoa aurrean dagoela edo haren lokaletan egin behar delako, jarduketak egiten dituen zerga-bilketako langileak eskudunak izango dira dagokion dilijentzia jaulkitzeko; dilijentzia Zerga-bilketa Zerbitzuaren Burutzak berretsiko du hamar eguneko epearen barruan, baina Zerbitzuaren Burutzak berretsi ezean enbargoa kendu dela ulertuko da.

48. artikulua. Enbargoak gauzatzea.

Ondasun enbargagarriak ordaintzera behartuaz bestelako pertsona edo erakundeen lokaletan badaude, enbargoa toki horretan gauzatu ahal izango da, toki horretako gordailuzainari edo haren mendeko langileei ondasun horiek emateko aginduz. Zer ondasun diren dagokion dilijentzian xehatuko da.

Berehala ematera ukatzekotan edo ematea ezinezkoa denean, prezintua jarriko zaie, edo ondasuna ordeztu edo handik eramatea eragozteko neurriak hartuko dira; hori guztia ere dilijentzia batean agerraraziko da.

Zerga-bilketako langileek beren kabuz edo agintarien laguntzarekin ondasun horiek eskueran izango dituzte, identifikatu edo gauzatu behar direnean, Araudi honetako 5. artikuluan esandakoaren harira.

49. artikulua. Enbargoen pilaketa.

1. Foru Ogasunak enbargatutako edo haren aldeko berme modura dauden ondasunen gainean beste hartzekodun batzuek lehentasunezko eskubiderik daukatenean, Ogasunak eskubide horietan subrogatu ahalko du eta hartzekodunei beren kredituen zenbatekoa ordaindu, kredituak Foru Ogasunak ondasunak salduz itxuraz eskura litzakeen produktuak baino nabarmen txikiagoak badira.

Subrogazioa bideratzeko, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak proposamen bat egingo du, eta Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak baimendu beharko du.

Kontzeptu horrengatik ordaindutako kopuruak prozeduraren kostutzat hartuko dira, eta Foru Ogasunak enbargatutako ondasuna derrigorrezko besterentzeagatik ateratako kopuruak ordaintzeari lehentasuna emango zaio.

2. Enbargatutako ondasunak derrigorrez desjabetzeko prozesuan sartuta daudenean, ukitutako ondasunetan eskua sartzeko jarduketak geldituko dira, eta desjabetzen ari den Administrazioari desjabetuari ordainduko zaiona enbargatuta dagoela jakinaraziko zaio. Zergapekoaren beste ondasun batzuk atxikitze prozedurarekin jarraitu ala ez erabakitzea begira, enbargoa desjabetutako ondasunaren prezio irmoaren bestekoan gauzatzat joko da; irmoa ez denean, adostuta dagoen bestekoan eta, adostasunik ez badago, desjabetzen duen Administrazioak eskainitako prezioaren bestekoan.

50. artikulua. Eskudiruaren enbargoa.

1. Eskudirurik enbargatzen denean, hala agerraraziko da bikoiztuta luzatuko den dilijentzian. Aleetako bat espedienteari erantsiko zaio, eta bestea zordunak edo dirua eman duen pertsonak gordeko du. Dirua Foru Diruzaintzan sartuko da, berehala.
2. Funtzionatzen ari diren enpresa edo erakundeetako kutxa, takila edo antzekotako diru bilketa enbargatu behar denean, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak diru bilketa horren kontura zer ordaindu behar den adostu ahalko du, betiere enpresak geldiaraztea eragozteko beharrezkoak badira.

51. artikulua. Kreditu- edo gordailu-erakundeetako ondasunen edo eskubideen enbargoa.

1. Kreditu-erakunde bati edo bestelako pertsona edo erakunde gordailuzainari edo kudeatzailearen eskuetan utzitako funtsak, baloreak, tituluak edo bestelako ondasunak enbargatzen direnean, enbargo dilijentzia honako toki hauetan aurkeztu ahalko da:
 - a) Erakundeak Zerga-bilketa Zerbitzuarekiko harremanetarako izendatutako bulegoan, erakundeak zerga-bilketan laguntzen badu.
 - b) Kreditu-erakundearen edo pertsona zein erakunde gordailuzainaren zerga-egoitzan edo sozietatearen egoitzan.
 - c) Aurreko horietako edozeinek eragiketarako baliatzen duen edozein bulego, sukurtsal edo agentzian.
2. Enbargo dilijentzia jasotzean, ordaintzera behartuari enbargatutako zenbatekoaren besteko ondasun eta eskubide guztiak atxikiko dira. Zorra bertan gauzagarriak diren ondasun eta eskubideen edo gordailuko kontuen saldoekin aseterik ez badago, duten balioa zehazteko beste bitarteko batzuetara jo behar den ondasun eta eskubide guztiak tratatuko dira, eta Administrazioari horien zerrenda jakinaraziko zaio, berak erabaki dezan zein geratuko diren behin betiko enbargatuta, gainerakoei traba kentzeko.
3. Eskudirutan edo enbargoa jasotzen duen erakundeak edo pertsonak berehala diru bihur ditzakeen ondasunetan atxikitako zenbatekoa horretarako jarritako kontuetan sartuko da, enbargoginbidea jasotzen denetik hamar egun balioduneko epearen barruan, betiere Zerga-bilketako Zerbitzuak kontrakorik jakinarazi ez badio.

Epea agortu ez zaien eta aurretiaz eskuratzeko aukerarik ez dagoen eperako gordailuen kasuan, enbargatutako zenbatekoa mugaegunean sartuko da. Aurretiaz eskuratzeko aukerarik badago, enbargatutako kopuruari penalizazioa kenduko zaio, eta sarrera garbia aurreko paragrafoan esandako epean gauzatuko da.

52. artikulua. Soldatak, alokairuak eta pentsioak enbargatzea.

1. Soldatak, alokairuak eta pentsioak Judiziamendu Zibilari buruzko Legean esandakoari adituz enbargatuko dira.

Enbargoa dagokion dilijentzian dokumentatuko da, eta zordunari eta ordaintzaileari jakinaraziko zaie. Ordaintzailea behartuta egongo da ondoz ondo ordaindutako zenbatekoen gainean kasuan kasuko kopuruak atxikitzen, eta murriztutako zenbatekoa Foru Diruzaintzan sartzera, enbargatutako kopurua osatzeraino.

2. Zorduna halako ordainketa bat baino gehiagoren onuraduna bada, pilatuko zaizkio enbargatzerik ez dagoen zatia behin baino ez ateratzeko. Enbargatutako kopurua zerga-bilketako organoak finkatzen duen ordainsaritik (batetik ala gehiagotatik) kendu ahalko da. Zordunak beren beregi beste bat proposatzen badu onartu egingo zaio, baldin eta hortik kobratzeko oztoporik sortzen ez bada.

53. artikulua. Ondasun higiezinak eta horien gaineko eskubide errealak enbargatzea.

1. Enbargoa dilijentzia bidez egingo da eta, agertzekotan, honako hauek zehaztuko dira bertan:
 - a) Titularraren edo, izatekotan, enbargatutako finkaren edukitzailearen izen-deiturak, sozietatearen izena edo izendapena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta identifikatzen lagun lezaketen gainerako datu guztiak.
 - b) Landa finkak badira, finkaren izena eta izaera, zein udal mugartetan dagoen eta non kokatuta dagoen herriko izendapenaren arabera, mugakideak, azalera eta edukiera, erregistroko edo, bestela, katastroko identifikazioa.
 - c) Hiriko finkak direnean, herria, kalea eta zenbakia, zenbat pisu eta lokal daukaten, azalera eta erregistroko edo, bestela, katastroko identifikazioa.
 - d) Zordunak enbargatutako higiezinaren gainean dituen eskubideak.
 - e) Zorraren zenbateko osoa, zeri dagokion, eta higiezina zein erantzukizuni lotuta dagoen, printzipala, gainkarguak, interesak eta kostuak diren zehaztuz.
 - f) Ohartaraziko da Jabetzaren Erregistroan enbargoaren prebentziozko idaztoharra jasoko dela Foru Administrazioaren alde edo, izatekotan, enbargoa gauzatzea eragiten duen kredituaren titularra den erakunde edo organismoaren alde.
2. Ondasun higiezinaren enbargoa Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 174. artikuluan aurreikusten den moduan jakinaraziko da.
3. Mugatu beharko balitz, Zerga-bilketako Zuzendariordeak Ogasun eta Finantza Saileko funtzionario tekniko bat izendatuko du, edo enpresa espezializatuen zerbitzuak kontratatuko ditu. Bi kasuetan, agindutako kudeaketa hori hamabost eguneko epean egingo da.
4. Enbargoaren ondoretarako, merkataritzako itsasontziak ondasun higiezin modura hartuko dira, eta enbargoa Araudi honetako artikuluko honek eta hurrengoek diotena betez aplikagarria zaionean gauzatuko zaio.

Edozelan ere, itsasontzi bat edo bestelako ontzirik enbargatzea dekretatzen denean, Ondasun Higigarrien Erregistroko Itsasontzien Atalean prebentziozko idaztoharra jasoko da.

54. artikulua. Ondasun higiezinaren eta horien gaineko eskubide errealeen enbargoaren prebentziozko idaztoharra Jabetzaren Erregistroan.

1. Zerga-administrazioak dagokion Jabetza Erregistroan ondasun higiezinaren eta horien gaineko eskubideen enbargoaren prebentziozko idaztoharra egiteko eskatuko du.
2. Horretarako, Zerga-bilketako Zerbitzuko buruak erregistratzailearentzako manamendua egingo du, hipotekei buruzko legerian eta hurrengo artikuluetan ezarritakoa kontuan hartuta.

Hori dela eta, arautegiak eskatutako jakinarazpen guztiak egin direla egiaztatuko da. Ez badira egin, egin egingo dira. Kautelazko enbargoak badira, behin betikoak direnean egingo dira. Edonola ere, enbargoaren berri emango zaie enbargoaren idatz-oharra egin aurreko eta geroko kargen titularrei.

3. Premiamenduz eskatutako zorrak, ordaindu ezean eragin zituen egintza edo kontratua Erregistroan idazterik ez dagoen zergengatik badira, prozedura enbargoaren fasera heltzen denean honelaxe jokatuko da:

- a) Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak organo eskudunari zor horiek geroratzeko proposatu edo erabakiko du, ondasunak eta enbargoaren prebentziozko idaztoharra foru Administrazioaren alde jasotzeko ondore bakarretarako. Geroratzearen erabakia zergaren likidazioa eragin duten eta Erregistroan inskripzioa egiteko baliatu behar diren dokumentuetan agerraraziko da.
- b) Dokumentu horiek eta enbargatzeko agindua Jabetzaren Erregistratzaileari aurkeztuko zaizkio; Erregistratzaileak, zordunaren eskubidea eta zorraren ordainketa geroratu delako aipua idatziz jaso eta gero, enbargoaren idaztoharra egingo du, berehala.
- c) Zergaren likidazioa originalen edo matrizeen kopia ez-benetakoak direlako inskribatu ezin diren dokumentuetan gainean egin bazen, dokumentu horiek baimendu zitzuten notario edo funtzionarioei benetako kopia luzatzeko eskatuko zaie, eta hor jasoko da geroratzearen erabakia.
- d) Enbargatutako ondasunak besterentzen badira, lortzen den prezioa likidazioen ordainketari eta diren gainerako erantzukizunei aplikatuko zaie. Aplikazio horren frogagiria Erregistroan aurkeztuko da, eta enbargoa eta geroratzearen oharrak indargabetuko ditu. Salmentaren eskrituran xehetasun horiek agerraraziko dira. Ondasunak foru Administrazioari edo hartzekodun erakundeari adjudikatzea erabakitzen bada, adjudikazioaren frogagiriak ondore berberak eragingo ditu.

55. artikulua. Ondasun higiezinaren eta horien gaineko eskubide errealeen enbargoaren prebentziozko idaztoharra egiteko aginduen aurkezpena eta betekizunak.

1. Ondasun higiezinaren eta horien gaineko eskubide errealeen enbargoaren prebentziozko idaztoharra bitarteko telematikoen bidez egin daiteke, erregistroetako titularrek eta Zerga-bilketa Zerbitzuak hala erabakitzen dutenean.

Premiamenduko prozeduraren jarduketek behartzen dutenean, enbargoaren prebentziozko idaztoharren luzamendua eskatuko da, hipoteken legerian xedatutakoaren haritik.

2. Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak bideratzen dituen ondasun higiezinak enbargatzeko prebentziozko idaztoharra egiteko aginduek baldintza hauek beteko dituzte:
 - a) Premiamenduko probidentziaren eta delako higiezinaren zein higiezinaren enbargoaren dilijentziaren kopia, enbargoa zeini eta zergatik jakinarazi zaien argituz.
 - b) Zordunak enbargatutako ondasunen gainean duen eskubidearen deskripzioa.
 - c) Aginduak hizpide dituen finken edukitzailearen izen-deiturak.
 - d) Zorraren zenbateko osoa, zeri dagokion, eta higiezina zein erantzukizuni lotuta dagoen, printzipala, gaitzarguak, interesak eta kostuak diren zehaztuz.
 - e) Aipatuko da idaztoharra foru Administrazioaren edo erakunde publiko hartzekodunaren alde egin beharko dela.
 - f) Adieraziko da Administrazioak, agindua ematen den unean, ezin duela enbargatutako ondasunen gainean hor ageri dena baino datu gehiagorik eman.
3. Aginduen hiru ale aurkeztuko dira Jabetza Erregistroan. Erregistratzaileek egintza horretan aletako bat itzuliko dute, aginduaren aurkezpenaren idazpena aipatuz eta, beste bat, bere garaian, dagokion idaztoharra eginda geratu dela edo egiterik egon ez dela argitzen duen froga-oharrarekin batera, non igarritako akatsak ez eze, akatsok ongitzeko modua eta bitartekoak ere xeheki adieraziko diren. Aginduaren hirugarren alea erregistroan artxibatuta geratuko da.

Finka edo finkak inskribatu gabe baleude edo akats ongigarria tarteko idaztoharrik egiterik ez balego, enbargoaren arrazoiaren berri jasoko da eta hala agerraraziko da aginduaren erantzunean.

56. artikulua. Gorabeherak idaztoharretan.

1. Jabetzaren Erregistratzaileek idaztoharra akats ongigarri batengatik eten dutela esanez itzultzen badute agindua, akatsa, ahal bada, unean bertan ongituko da eta, bestela, geroago.
2. Akats ongigarriengatik egindako idaztoharra hipoteken legerian jasota dagoen moduan ez iraungitzeko, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak, behar izanez gero, legeak baimentzen duen luzamendua eskatuko du.
3. Ondasunak hirugarren baten izenean idatzita daudelako, eta isil bidezko hipoteka legaleko kasu bat delako gertatu bada ukapena, erregistroko titularrari zorra inolako gainkargurik gabe ordaintzeko eskatuko zaio, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 60. artikuluko 1. idatz-zatiaren b) letran esandako epean eta, ordainduko ez balu, premiamendu-probidentzia emango litzateke hirugarren horren kontra eta, prozedura hirugarrenaren kontra jarraituko litzateke.
4. Jabetzaren Erregistratzailearen erabakiekin ados egotekotan, bidezkoa bada, erregistroko kalifikazioaren kontrako errekurtsua jarriko da.

57. artikulua. Interesak, errentak eta mota guztietako emaitzak enbargatzea.

1. Dirutan ordaintzen diren zergapekoaren interesak, emaitzak, produktuak eta errentak enbargatzen direnean, enbargoaren dilijentzia zergapekoari eta ordaintzen duen pertsona edo erakundeari jakinaraziko zaie; ordaintzaileak diru hori atxiki eta Diruzaintzan sartuko ditu, zorraren zenbatekoa osatzeraino.
2. Enbargatuko diren emaitzak edo produktuak Jabetza Intelektualaren Legeak babestutako obra baten ustiapen eskubideei buruzkoak direnean, alokairu modura hartuko dira, Lege horrek dioenaren arabera, eta enbargoa Araudi honetako 52. artikuluan dioen bezala egingo da.
3. Enbargatutakoa merkataritza, industria eta nekazaritza enpresa edo jarduerak lortutako produktuak edo errentak badira, funtzionario edo profesional bat izendatuko da administrari aritzeko, edo negozioaren kudeaketan esku hartzeko. Izendapena enpresa edo establezimenduaren administrazio organoarekin edo negozioaren titularrarekin entzunaldia izan eta gero erabakiko da, Ogasuneko Zuzendari Orokorraren ebazpenaren bitartez, eta ebazpenean Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 174. artikulua 5. idatz-zatian jarritako zioak batzen direla argudiatu eta gauzatu baino lehen fiskalizatuko diren kudeaketa edo administrazio-egintzak zehaztuko dira.

Lehendik interbentzio edo administrazio judizialik badago, zorduna konkurtso egoeran dagoelako, edo beste edozergatik, kontu-hartzaile edo epai administrari berbera izenda liteke administrari, baldin eta kargua onesten badu, eta zeregin horretarako beste pertsona bat izendatzeko funsdun arrazoirik ez badago.

4. Emaitzak ziurtatuta badaude, erakunde asegurgileari ezbeharrik izatekotan egokituko liratekeen kalte ordainak edo prestazioak enbargatuta geratuko liratekeela jakinaraziko zaio. Kalte-ordain edo prestazio horiek Foru Diruzaintzan sartu beharko dira, ezbeharrik gertatzen bada.

58. artikulua. Merkataritza eta industriako establezimenduen enbargoa.

1. Enbargatzen denean, dagokion dilijentzia luzatuko da; dilijentzian enbargatutako establezimenduan dauden ondasun eta eskubide guztien inbentarioa jasoko da, eta

jakinarazpena Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 174. artikulua dioen modura egingo da; errentan dagoen higiezin balitz, errentatzaileari ere jakinaraziko litzaioke.

2. Enbargoak honako ondasun eta eskubideak hartuko lituzke, izatekotan:
 - a) Errentan badago, negozioaren lokalaren eta instalazioen errentamendu kontratuaren lagapen eskubidea.
 - b) Jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak.
 - c) Tresneria, makinak, altzariak eta gainerako produkzio eta lan bitartekoak.
 - d) Merkatu-gaiak eta lehengaiak.
 - e) Balizko kalte-ordainak.
 - f) Beste edozein ondasun eta eskubide enbargagarri.
3. Enbargoaren prebentziozko idaztoharra egingo da dagokion erregistroetan, eta hori egiteko agindua emango da.
4. Kasua zelakoa den arabera, honako neurri hauetakoren bat hartzea ere erabaki liteke:
 - a) Lokala prezintatzea harik eta enbargatutakoa besterentzen den arte.
 - b) Funtzionario edo profesional bat izendatzea, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 174. artikuluko 5. idatz-zatian eta Araudi honetako 57. artikuluko 3. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.
5. Merkataritza eta industriako establezimenduak Kapitulu honetako V. atalean ezarritako prozeduraren bidez besterenduko dira.

59. artikulua. Gainerako ondasun higiezin eta abereen enbargoa.

1. Enbargo hau gauzatzeko titularraren baimena behar den toki batera sartu behar bada, eta titularrak baimenik ematen ez badu, dagokion epaitegiari eskatuko zaio sartzeko baimena.
2. Enbargoaren jardueraren dilijentzia egingo da. Ordaintzera behartua enbargoaren egintzan ez badago, dagokion jakinarazpena egingo zaio. Ondasunen gordailua berehala egiten ez bada, prezintatuko dira, edo egokiak diren beste ziurtapen neurri batzuk hartuko dira.
3. Enbargoak Ondasun Higigarrien Erregistroan inskriba daitezkeen ondasunei ukitzen direnean, prozedura garatzen duen zerga-bilketako organoak jarraian enbargo agindua atera ahalko du, dagokion herriko erregistroan prebentziozko idaztoharra egiteko. Agindu horiek beren araudian esan bezala emango dira.
4. Automobilak, kamioiak, motozikletak, aireontziak edo bestelako ibilgailuak direnean, ordaintzera behartuari enbargoa jakinaraziko zaio, eta bost eguneko epea emango zaio dokumentazioarekin eta giltzekin batera, zerga-bilketako organoaren eskuetan jartzeko. Eskaria bete ezean, zirkulazioa zaintzeaz arduratzen diren agintariei, eta bidezkoak diren gainerakoei, ondasun horiek aurkitzen dituzten tokiak atzeman, gordailutu eta prezintatzeko, eta eskualdatzea zein Foru Ogasunaren eskubideei kalte egin liezaiokeen beste edozein jarduketa eragozteko agindua luzatuko zaie.
5. Epekako erosketen sistemaren bidez eskuratutako ondasunak enbargatzen direnean, halakoaren araudiaren xedapenak hartuko dira kontuan.

60. artikulua. Borondatezko Giza Aurreikuspeneko Erakunde, Pentsio Plan, Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitate eta Bermatutako Aurreikuspen Planetako eskubide finkatuak enbargatzea.

1. Dagokion araudiak ahalbidetzen duen terminoetan, Borondatezko Giza Aurreikuspeneko Erakunde, Pentsio Plan, Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitate eta Bermatutako Aurreikuspen Planetako partaidea denaren prestazio eskubidea enbargagarria izango da, baina enbargoa edo traba ez da burutuko harik eta prestaziorako eskubidea gauzatzen edo erreskatatzeko aurreikusitako inguruabarrak gertatzen diren arte.
2. Erakunde kudeatzaile eta gordailuzainek enbargoaren oharra jasoko dute, eta hala jakinaraziko diote jarduneko zerga-bilketako organoari gehienez hamar egunen buruan, eta kontratatutako plan edo funtsaren, eskubide finkatuen, aurretiaz erreskatatzeko ahalbide eta daten, hartzen dituen prestazioen, eta enbargoa gauzatzeko garrantzi ekonomikoa daukaten bestelako edozein daturen gaineko informazioa bidaliko diote. Aurretiazko trabarik badago, jakinarazpen horretan zerga-bilketako organoari esango diote, zer eta nolako enbargoaren xehetasunak emanez.
3. Enbargoa jakinarazten den unetik Zerga-administrazioak enbargoa kendu dela jakinarazi arte, erakunde kudeatzaile eta gordailuzainak behartuta egongo dira ordaintzera behartuaren alde sor litezkeen kopuruak atxikitzen, prestazioa jasotzea dakarten zioengatik. Zerga-administrazioari, halaber, jakinaraziko diote partaideak kapitala erreskatatzeko edo pertzepzioa aurretiaz jasotzeko aukera daukanean, administrazioak ordaintzera behartuari ordaintzeko agintzeko. Aginduzko dei hori bete ezean, Zerga-administrazioak ordaintzera behartuaren tokia hartuko du aukeratzeko eskubideari dagokionez.
4. Eskubide finkatuak beste plan batera mugitzen badira, erakunde kudeatzaileak Zerga-administrazioari jakinarazi beharko dio eta honi frogatu beharko dio planaren jomugako erakunde kudeatzaile eta gordailuzainei enbargoaren berri eman zaiela, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. idatz-zatian xedatutakoaren ondoretarako.

61. artikulua. Beste kreditu, gauza eta eskubide batzuen enbargoa.

Arestiko artikuluetan esandako kreditu, gauza eta eskubideen bestelakoak direnean, hauxe egingo da:

- a) Bermerik gabeko kredituak eta eskubideak badira, zordunari eta premiamendupekoaren zorduna den pertsona edo erakundeari enbargoaren berri emango zaie; gainera, ohartaraziko zaie, jakinarazpenaren dataren ostean, behartuari ordaindutakoak ez duela askapen ondorerik izango. Enbargatutako kreditua edo eskubidea mugaeguneratzen denean, zenbatekoa Foru Administrazioan sartuko da, zorra asetzeraino. Bestela, kreditua zor horri lotuta geratuko da mugaeguneratzen den arte, lehenago ordaintzen ez bada. Kreditua edo eskubidea ondoz ondoko ordainketen bidez gauzatzen bada, ordaintzaileak foru Administrazioari ordainduko dio, zor den kopurua osatzeraino.
- b) Bermepeko kredituak badira bermegileari edo, bestela, bermepean eskainitako ondasun edo eskubidearen edukitzaileari ere jakinaraziko zaie, eta bermea kreditua mugaeguneratu arte gordailutu ahalko da. Kreditua mugaeguneratu eta zorra ordaindu ez bada, bermea gauzatuko da.
- c) Sozietate zibil, kolektibo, komanditario eta erantzukizun mugatuko partaidetzak edo bigarren mailako merkatu ofizialetan kotizatzen ez diren sozietateen akzioak enbargatzen direnean, Bazkideen Erregistro Liburuan idatziko da; horrez gain, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzari jakinaraziko zaio akzioak edo partaidetzak libreki eskualdatzea mugatzeko itunak daudela. Bazkideek erosteko lehentasuna badaukate, erakundeko gainerako bazkideei ere jakinaraziko zaie.

62. artikulua. Enbargoak mantentzea eta kentzea.

1. Edozelako kontratu harreman baten ondoriozko ondasun edo eskubideak enbargatu direnean, enbargo hori eraginkorra izango da harik eta jazarritako zorraren zenbatekoa asetzen den arte, edo Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak traba kentzen duen arte, delako kontratua agortzen ez den bitartean.
2. Enbargo guztiak edo baten bat indargabetzeko inguruabarrak daudenean, kenduko dira eta, hala dagokionean, ondasunak ordaintzera behartuari edo ondasun zein eskubidearen titular modura ageri denari itzuliko zaizkio. Erregistro Publikoetan egindako enbargo idaztoharra indargabetzeko aginduak ere bidaliko dira.

IV. ATALA ENBARGATU DIREN ONDASUNEN GORDAILUA

63. artikulua. Enbargatu diren ondasunen gordailua.

1. Zerga-bilketako organoak enbargatutako ondasunak enbargoa gauzatu arte non gordailutuko diren zehaztuko du, artikulua honetan finkatzen diren irizpideen arabera.
2. Enbargatzen dituztenean kreditu-erakundeetan zein, zerga-bilketako organoaren iritziz, segurtasun eta kaudimen bermeak eskaintzen dituzten beste erakunde batzuetan gordailututa dauden ondasunak erakunde horietan utziko dira, zerga-bilketako organoaren eskueran.
3. Gainerako ondasunak zerga-bilketako organoaren iritziz ondasun horiek gordailututa edukitzeko baldintza egokiak dituzten lokaletan gordeko dira. Gordailua ordaintzera behartuta dagoenaren lokaletan egin ahalko da garraiatzeko edo mugitzeko zailak diren ondasunak direnean; halakoetan, prezintatuko dira edo segurtasuna eta osotasuna bermatuko dizkieten neurriak hartuko dira, eta ordaintzera behartuta dagoena Araudi honetako 64. artikuluan aipatutako gordailuzainaren betebeharrak eta erantzukizunen mende geratuko da.
4. Gordailuetan aritu ohi diren enpresen lokaletan edo zergapekoaz bestelako pertsona fisiko edo juridikoen lokaletan gordailutzen direnean enbargatutako ondasunak, Administrazioaren eta gordailuzainaren arteko harremanak Herri Administrazioen kontratuen legerian ezarritakoaren arabera bideratuko dira, betiere Atal honetan aurreikusten ez diren kontuetan.
5. Enbargatutako ondasunen gordailurako hasieran hautatutako lekuak beharrezko baldintzak betetzeari utziko balio edo gordailuzainak dagozkion zereginak beteko ez balitu, zerga-bilketako organoak beste leku bat edo gordailuzain egokia jartzeko erabakiko du.

64. artikulua. Gordailuzainaren zereginak.

1. Gordailuzaina behartuta dago enbargatutako ondasunak zaintzera, eta eskatzen zaionean itzultzera. Zeregin horretan arduratsu jokatu du.

Gordailuzainaren zereginak enbargatutako ondasunak zaindu, kontserbatu eta itzultze hutsez harantzagoko ekintzak eskatzen dituztenean, jarduketara horietarako Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzaren baimena beharko da.

2. Merkataritza eta industri establezimenduak enbargatzen direnean, gordailuzain edo administratzaileak izendatu bada, esandako horiez gain, ondasun eta negozioen ohiko kudeaketaz ere arduratuko dira, eta horren ondoriozko kopuruak Foru Diruzaintzara sartu beharko dituzte.

Izendapenean Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzaren baimena zer-nolako eta zenbateko eragiketetan beharko den ere zehaztuko da.

65. artikulua. Enbargatutako ondasunen gordailuzainaren eskubide, betebeharrak eta erantzukizunak.

1. Gordailuzainak, zergapekoa bera denean ez bada, eskubidea dauka bere zerbitzuen prestazioarengatik hitzartutako lansaria jasotzeko eta, lansarian sartuta ez badaude, gordailua tarteko jasan behar izandako gastuak itzul dakizkion.
2. Gordailuzain modura eta, izatekotan, administratzaile modura dituen zereginei datxekien betebeharrak gain, zerga-bilketako organoak agintzen dizkion azalpenak eman, eta organo horrek ondasunak ahalik eta ondoen administratu eta kontserbatze aldera erabakitzen dituen neurriak ere beteko ditu.
3. Gordailuzaina erantzukizun zibilean edo zigor erantzukizunean eroriko da gordailuzain modura dituen betebeharrak betetzen ez dituenean. Era berean, zorraren erantzule solidarioa izango da enbargatutako ondasunak jasotzen utzi edo horretan laguntzen duenean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 41. artikuluko 4. idatz-zatian ezarritako terminoetan.

V. ATALA ENBARGATU DIREN ONDASUNAK BESTERENTZEA

66. artikulua. Besterentzeko prozedura hastea.

Enbargatutako edo berme gisa emandako ondasunak besterendu behar direnean, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak, proportzionaltasun eta egokiera printzipioari segituz, ondasun horiek zerga eskagarriaren pareko balioraino besterentzera begirako izapideak hasiko ditu. Hala jakinaraziko zaio zordunari eta, dagokionean, bere ezkontideari edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikotekideari.

67. artikulua. Enbargatu diren ondasunak besterentzea.

1. Merkatuetan negoziatzeko onartuta dauden eta kreditu-erakundeetan edo bestelako gordailu-erakundeetan gordailututa dauden balioen enbargoak honelaxe gauzatuko dira:
 - a) Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak ordaindu gabe dagoen zorraren zenbateko osoa asetzeko beste diren balioak merkatu ofizialaren bitartez besterentzeko agindua emango du, berandutza-korrituak, gainkarguak eta kostuak barne, ahalik eta baldintzarik onenetan. Erakunde gordailuzain edo kudeatzaileak ateratako zenbatekotik bidezkoak diren gastuak eta komisioak kendu ahalko ditu. Agindu hori erakunde gordailuzain edo kudeatzailearen bitartez tramitatzen ez bada, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak erakunde artezkariarengana bideratuko du honek bete dezan.
 - b) Ateratzen den zenbatekoa berehala sartuko da Administrazioak zehazten duen kontuan, eta soberakinik balego jabearen esku jarriko litzateke. Ateratzen dena enbargoaren zenbateko osoa asetzeko nahikoa ez balitz, gainerako balioak besterentzen jarraituko da, harik eta zorra kitatu arte. Zorra osorik ordaintzen denean, gainerako ondasun edo eskubideen gaineko traba kenduko da.
2. Balioak bigarren mailako merkatuan negoziatzeko onartzen ez badira, Atal honetako hurrengo artikuluetan xedatutakoaren arabera saltzea erabakiko da.
3. Zorra kitatzeko egokiago bada, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak finantzazko aktiboak besterentzea erabaki ordez mota guztietako dibidendu, korritu eta etekinak eta, izatekotan, itzulketak mugaeguneratu arte itxaron gabe enbargatzea erabaki ahal izango du.

68. artikulua. Loteak eratzea.

1. Enbargatutako ondasunak lotetan banatu ahalko dira, lote bakoitzean ezaugarriak eta izan lezaketen aprobetxamenduak edo zerbitzuak adituz antzekoak direnak sartuz.

2. Era berean, erlotan banatu ahal izango dira lizitatzaileri lehiatzeko erraztasuna emateko beharrezkotzat joz gero.
3. Lote bakarra ere atondu ahalko da hipoteka berberaren edo bestelako zama edo zerga errealdaren mende dauden enbargatutako ondasunekin; bestela, hainbat zordunen titularitatekoa den ondasun beraren gaineko eskubideak besterendu behar direnean.

69. artikulua. Ondasunen balorazioa eta besterentzeko oinarri finkatzea.

1. Zerga-bilketa Zerbitzuak merkatuko prezioak erreferentzia hartuta baloratuko ditu enbargatutako ondasunak. Zerbitzuaren iritziz ezagupen bereziak behar badira, ondasunak Bizkaiko Foru Aldundiaren beste zerbitzu batzuek edo kanpoko agente espezializatuak baloratuko dituzte.
2. Inskriba daitezkeen ondasun eta eskubideak direnean, Erregistroak jabariaren eta zamen gainean luzatutako ziurtagiria ikusita, zerga-bilketako organoak lehendik inskribatuta zeuden zamek irauten duten ala inskribatu osteko ordainketen ondorioz aldatu diren ikertuko du. Horretarako, zerga-bilketako organoak lehentasuna daukaten aurreko kredituen titularrengana jo ahalko du bermatutako kreditu horrek oraindik dirauen eta egun zenbatekoa den berri eman diezaioten.

Informazio hori eskatzen zaien hartzekodunek ahalik eta zehatzen argitu beharko dute kredituak dirauen edo edozergatik iraungi den; eta irautekotan, ordaintzeko zenbat geratzen den, mugaeguna zein den eta ordainketa zer epe eta baldintzatan egin behar den zehaztu beharko dute. Kreditua mugaeguneratuta eta ordaindu gabe badago, mugaegunera heldu diren berandutza-korrituak eta atzerapen egun bakoitzeko zenbatekoak diren ere zehaztuko da.

Lehentasuna lehenagoko enbargo idaztoharren batengatik bada, informazioa ematen den egunean printzipaletik eta mugaeguneratutako korrituetatik ordaintzeko zenbat geratzen den adieraziko da, baita hartzekodunari ordaindu gabe igarotzen den egun bakoitzean zenbateko berandutza-korrituak sortzen diren eta kostuetarako aurreikuspena zein den ere.

3. Hara zein izango den besterentzeko oinarri:
 - a) Enbargatutako ondasunaren zein ondasunen gainean inolako karga edo zamarik ez badago, balorazioaren zenbatekoa.
 - b) Enbargatutako ondasunen gainean zama edo karga errealik badago, honakoak baliatuko dira besterentzeko oinarri modura:
 - Karga edo zamak ondasunaren balorazioa baino handiagoak ez badira: ondasunen balioaren eta Foru Administrazioaren alde idatziz jasotako eskubidearen aurreko zama edo kargen balio eguneratuaren arteko diferentzia.
 - Karga edo zamak ondasunaren balorazioa baino handiagoak badira, ez da oinarririk finkatuko enkanterako.

Aurreko karga edo zama horiek hor iraungo dute, beren iraungipenari erremateko preziorik aplikatu gabe.

4. Lehentasunezko zama guztiak edo baten bat simulatuak direlako zantzurik badago, eta zenbatekoak zorraren eraginkortasuna eragotzi edo zail balezake, jarduketak Lege Aholkularitzako Zerbitzura bidaliko dira har daitezkeen neurriei (erantzukizun zibil edo zigor erantzukizuna barne) buruzko txostena eman dezan. Hori guztia ebazten den bitartean, prozedurak aurrera segituko du ondasun horietan edo enbarga daitezkeen gainerakoetan.

70. artikulua. Jabetza tituluak.

...

71. artikulua. Besterentzeko moduak.

1. Enbargatutako ondasunak enkante publiko, lehiaketa publiko edo zuzeneko adjudikazioaren bidez besterenduko dira.
2. Ondasun enbargatuak adjudikatzeko enkante publikoa izango da ohiko prozedura; izan ere, horixe erabiliko da beste besterentze-modurik berariaz aplikatu behar ez den guztietan.
3. Enbargatutako ondasunak lehiaketa bidez besterentzeko, Zerga-bilketako Zuzendariordeztak baimena eman behar du ebazpen zioztatuaren bidez, Zerga-bilketako Zerbitzuko Burutzak proposatu ondoren; kasu hauetan soilik emango du baimen hori:
 - a) Enbargatutakoaren salmentak, haren kalitateak edo magnitudea direla eta, merkatuan nahasmendu kaltegarriak sortaraz ditzakeenean.
 - b) Interes publikoaren beste arrazoi batzuek, baldin eta behar bezala bidezkoturik badaude, hala eskatzen dutenean. s.
4. Enbargatutako ondasunak galkorrak badira, presaz besterendu behar badira, edo ez badago lehia sustatzerik edo hori egitea komeni ez bada, arrazoituta, edo, bigarren enkantea edo lehiaketa egin ondoren, adjudikatu ez diren ondasunak edo eskubideak badaude, Zerga-bilketako Zuzendariordeztak, Zerga-bilketako Zerbitzuko buruak proposatuta, ondasunak zuzeneko adjudikazioaren bidez saltzeko baimena eman ahal izango du, ebazpen arrazoitu baten bidez.
5. Dena delakoa ondasunak besterentzeko erabiltzen den modua, Foru Administrazioak adjudikazioa bereganatzeko lehentasuna izango du, baldin eta eskaintza guztiak aurkeztutakoan hoberena berdintzea edo hobetzea erabakitzen badu. Eskubide hori eskaintzak ireki eta hurrengo hamar egun baliodunetan baliatu beharko du Ogasun eta Finantza Saileko diputatuaren foru aginduaren bidez.
6. Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari eskaintzak telematikoki izapidetzeko eta besterendutako ondasunak edo eskubideak informatikoki adjudikatzeko prozedura gara dezan.

72. artikulua. Besterentzeko erabakia.

1. Zerga-bilketako Zerbitzuko Burutzak enbargatutako ondasunak enkante publiko, lehiaketa edo zuzeneko adjudikazioaren bidez besterentzeko erabakia hartuko du. Erabaki horretan honakoak jasoko dira:
 - a) Zelan besterenduko diren: enkante, lehiaketa edo zuzeneko adjudikazio bidez.
 - b) Zelakoak diren ondasunak edo loteak, eta zer ordenatan besterenduko diren.
 - c) Irauten segituko duten eta ondasunei ukitzen dieten ondasunen eta beren titularren zama, karga eta egoera juridikoak zein diren.
 - d) Lizitazio-oinarria zein den.
 - e) Lehiaketan edo enkantean parte hartzeko jarri beharreko bermea (gehienez lizitazio-oinarriaren %25 izango da eta gutxienez 1.000 euro) eta non eta nola jarri behar den.
 - f) Lehiaketetan, adjudikaziorako erabiliko diren irizpide objektiboak, eta parte hartzeko bete beharreko baldintzak.
 - g) Eskaintzak aurkezteko epea eta non eta nola aurkeztu behar diren.
 - h) Foru Administrazioak erosteko lehentasuna daukala.

- i) Zer epe izango duen adjudikaziodunak eraturako gordailuaren eta adjudikazioaren prezioaren arteko diferentzia emateko. Epe hori adjudikazioaren jakinarazpenetik hasi eta gehienez hilabetekoa izango da, Araudi honetako 71. artikuluko 5. idatz-zatiak Foru Administrazioaren lehentasunaren aukera gauzatzeko hizpide daukan epea agortu eta gero. Ordainketa egin ezean eraturako gordailuaren zenbatekoa ere galduko duela argituko da, eta ezin izango diola, inola ere, adjudikazio eskubidea hirugarren bati laga.
 - j) Enkante eta lehiaketetan, eskaintzak irekitzeko egintza publikoa non, noiz, zein ordutan eta zein lokaletan izango den.
 - k) Behar denean, besterentzea enpresa edo profesional espezializatu baten bidez egingo dela adieraziko da; halakoetan hura identifikatuko da, ondasunak edo tituluak zein lokaletan dauden argituko da eta noiz azter daitezkeen zehaztuko da (eskaintzak aurkezteko epeko azken egun balioduna arte).
 - l) Ohartaraziko da enbargoa gauzaten zaion ondasunari buruzko ezeztapenen eta idazpenen ondoriozko erregistroko gastuak eta kostuak adjudikaziodunak ordainduko dituela.
 - m) Beren beregi adieraziko da besterentzearen oinarrian ez direla ondasun horien jabealdaketa zamatzen duten zeharkako zergak sartzen.
 - n) Besterentzean kontuan hartu behar den bestelako edozein inguruabar, klausula edo baldintza.
2. Besterentze-erabakia eta lehiaketa edo zuzeneko adjudikazioaren bidezko besterentzearen ebazpen zioztatua ordaintzera behartuari eta beraren ezkontideari, edo maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera izateko bikotekideari, jakinaraziko zaie, enbargoa jakinarazi behar denean. Halaber, gordailuzainari ere jakinaraziko zaio, Administrazioetik kanpoko bada, bai eta hipoteka eta pignorazio hartzekodunei eta ondasun edo eskubidearen gaineko legebidezko eskubide edo interesen bat duten guztiei ere. Jakinarazpenetan agerraraziko da ondasunak adjudikatu aurretik ondasun enbargatuak kitatu ahal izango direla prozeduraren zorrak eta kostuak ordainduta.
 3. Negozio lokalaren intsuldaketa-eskubidea besterentzeko erabakia finkaren errentatzaileari jakinaraziko zaio, hiri-errentamenduen legerian ezarritako ondorioetarako eta legeria horretan ezarritako baldintzetan.
 4. Egoitza edo helbide ezezaguneko behartuen kasuan, salmentaren jakinarazpena iragarkia «Bizkaiko Aldizkari Ofizialean» argitaratuta egingo da, legezko ondore guztietarako.

73. artikulua. Besterentzearen jakinarazpena eta iragarkia.

1. Enkantea edo lehiaketa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean eta aplikatu beharreko arauen arabera behar diren gainerako toki guztietan iragarriko da. Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzaren iritziz komenigarria eta ondasunen balioarekiko proportziozkoa denean, beste komunikabide batzuetan ere iragarriko da, edo berariazko beste bide batzuk erabiliz, eta Foru Administrazioaren webgunean ere bai.
2. Erregistro publikoetan inskriba daitezkeen ondasunak direnean, lizitatzailleek espedienteari erantsi zaizkion jabetza-tituluak baino ez dituztela jasoko ohartemango da aipatu iragarkietan, besterik eskatzeko eskubiderik izango ez dutela; ondasunak erregistroan inskribaturik egon ezean, adjudikazio-eskrituraren bidez Hipoteka Legean aurreikusten den arabera barne matrikulazioa egiteratu daitekeela, eta gainerako kasuetan, hala beharko balitz, arautegi horrek erregistroa eta errealitate juridikoa bateratzeko ezartzen duena beteko dela, baldin eta lizitatzailleek horretarako interesik balute.

74. artikulua. Enkante eta lehiaketetako eskaintzak.

1. Eskaintzak idatziz aurkeztu behar dira, gutunazal baten barruan; gutxienez besterentzeko ezarritako oinarriaren %50 hartu behar dute eta ez 500 euro baino gutxiago.
2. Lehiaketa edo enkanterako proposizioak besterentzeari buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik eskaintzak irekitzeko ezarritako aldiko azken egun balioduna bitartean aurkeztu ahal izango dira. Besterentzeari buruzko iragarkia argitaratzen denetik eskaintzak irekitzeko egintza publikoa egin arte egutegiko hamabost egun pasatu behar dira gutxienez.
3. Besterentzearen erabakiak berariaz adierazten dituen tokian eta moduan soilik aurkeztuko dira eskaintzak. Gutunazal itxia aurkeztutakoan, aurkezleari frogagiria emango zaio; bertan eskaintza zein egunetan eta zein ordutan aurkeztu den adieraziko da eta zein ondasun eskuratu nahi den zehaztuko da. Horretarako, hain zuzen ere, eskaintzen erregistro berezia egingo da.
4. Gutunazal itxian aurkeztuko den eskaintzan behar bezala identifikatu behar da eskuratu nahi den erloa edo ondasuna; eta bi deialdi egingo badira, lehenengo deialdirako edo bigarrenarako den zehaztu behar da. Horrez gainera, onartuko badira, agiri hauek izan behar ditu:
 - a) Lizitzailearen nortasun juridikoaren kreditazioa, eta behar denean haren ordezkaritza ere bai.
 - b) Zerga-betebeharrak eta zuzenbide publikoko gainerakoak Bizkaiko Foru Aldundian egunean izatearen frogagiria.
 - c) Berme-gordailuaren zenbatekoa duen banku-txekea edo txeke adostua, Bizkaiko Foru Ogasunarentzat.
 - d) Eskuratu nahi den ondasunaren identifikazioa.
 - e) Eskaintza ekonomikoa.
 - f) Hala dagokionean, lehiaketaren baldintzak bete direlako frogagiriak.
5. Eskaintzak eta lizitzaileak isilpean egongo dira eta neurriak jarriko dira hala egoteko eskaintzak jendaurrean ireki arte.
6. Eskaintzak aurkeztu ahaliko dituzte inolako lege eragozpen eta murrizpenik ez duten pertsonak; beraiek zuzenean zein ordezkari baten bidez aurkeztea izango dute, betiere aurkezpenaren unean beren zerga-betebeharrak eta zuzenbide publikoko beste guztiak egunean badituzte; salbuespen dira Zerga-bilketako Zerbitzura atxikitako langileak, prozeduran zuzenean inplikaturako organoen titularrak eta funtzionarioak, peritu tasatzaileak, espedientean esku hartzen duten gordailuzainak, eta horien guztien enplegatu eta laguntzaileak, beren kabuz zein tarteko baten bidez.

75. artikulua. Eskaintzak irekitzea eta enkante bidez adjudikatzea.

1. Eskaintzak jendaurreko egintzan irekiko ditu enkante-mahaiko buruak.
2. Enkante-mahaian kide hauek izango dira:
 - a) Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutza, mahaiburu izango dena.
 - b) Fiskalizazio Zerbitzuko Burutza.
 - c) Zerga-bilketa Zerbitzura atxikitako teknikari bat.

Mahaia behar bezala eratuko da kideetako bi bilduz gero. Mahaikideak berariazko eskuordespeneren bidez ordeztu daitezke; hala gertatzen denean, espedientean agertu behar da.

3. Jarraika, ondasun edo erloak eskuratzeko eskaintzak ireki eta irakurriko dira, betiere besterentzeari buruzko iragarkian ezarritako hurrenkeran; haietako batek eskaintzarik ez badu, hurrengora pasatuko da. Egintza bukatutzat emango da adjudikatzen diren ondasunen zenbatekoaz zordunaren zor guztiak estaltzen direnean.
4. Erlo edo ondasun bakoitza eskaintza ekonomikorik handienari adjudikatuko zaio; eskaintza batzuk hainbana suertatzen badira, lehenen aurkeztu denari adjudikatuko zaio.
5. Enkantea amaitutakoan enkantearen akta idatziko da; bertan enkanteko alderdi garrantzitsu guztiak agertu behar dira: aurkeztu diren eskaintzak, adjudikazio-prezioa, adjudikaziodunak eta gorabeherak. Aktaren kopia bana emango zaie eskatzen duten lizitatzaille guztiei.

76. artikulua. Enpresa edo profesional espezializatuen bidezko besterentzea.

1. Zerga-bilketako Zuzendariordeak erabaki dezake enkanteen edo salmenten exekuzio materiala enpresa edo profesional espezializatuak egin dezakete, eta, horretarako, zuzeneko adjudikazioa egingo du haien artean.
2. Halako kasuetan, araudi honetan xedatutakoa aplikatuko da, baina honako berezitasun hauek kontuan harturik:
 - a) Lizitazioan parte hartzeko ez da beharrezko izango aurretik gordailua jartzea.
 - b) Lizitazioa egintza mota hauetan ohi den bezala burutuko da. Gutunazalean ez beste bitarteko batzuetan ere onartuko dira eskaintzak.
 - c) Lizitazioan mahaikide bat izango da; egintzan gorabeheraren bat gertatzen bada, berak erabaki du zer egin.
 - d) Ordaintzera behartuak enkantearen egintzan zorra ordaintzea erabakitzen badu, errekarria, korrituak eta kostuak barne direla, mahaikideak amaitutzat joko du egintza.
3. Mahaiaren ordezkariak likidazioa egingo du: lortutako kopurua, zerbitzuaren ordainsaria eta enpresa edo profesionalaren sarrera. Horretarako, ordainsaria prozeduraren kostutzat hartuko da.

Zenbateko likidoa bost egun baliodun pasatu baino lehen sartu behar du enpresak edo profesionalak Foru Administrazioan.

77. artikulua. Eskaintzak irekitzea eta lehiaketa bidez adjudikatzea.

1. Eskaintzak ireki behar diren egunean Mahaiak, Araudi honetako 75. artikuluko 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera eratuko denak, jasotako agiriak kalifikatuko ditu, lizitatzailleen proposizioak irekiko ditu eta Zerga-bilketako Zuzendariordeari bidaliko dizkio irekiera-aktarekin eta bidezko deritzon proposamenarekin batera.
2. Zerga-bilketako Zuzendariordeak, behar dituen txostenak eskatu ondoren, hamar egun baliodun pasatu baino lehen eskaintzarik hoberenari adjudikatuko dio lehiaketa, edo hutsik utziko du. Eskaintzarik hoberena zein den ebazteko, alderdi ekonomikoa ez ezik deialdiko baldintzak eta adjudikazio-irizpideak ere izango ditu kontuan. Ebazpenean zioak azaldu behar ditu, lehiaketaren adjudikazio-irizpideak oinarritzat hartuta.

78. artikulua. Bigarren enkantearen edo lehiaketaren bidezko besterentzea.

1. Lehen enkantea edo lehiaketa egin ondoren, ondasunen bat adjudikatu gabe eta zorren bat kitatu gabe geratzen bada, bigarren enkante baten bidez besterendu ahal izango dira.

2. Bigarren deialdiko lizitazio-oinarria lehengo deialdikoaren %50 izango da.
3. Egokitzat jotzen bada, erabaki daiteke lehen eta bigarren enkantea edo lehiaketa deialdi berean egitea. Halakoetan, eskaintzen gutun-azaletan berariaz agerrarazi beharko da zein deialditarako diren.
4. Bigarren enkantea edo lehiaketa egin ondoren, ondasunen bat adjudikatu gabe eta zorren bat kitatu gabe geratzen bada, zuzeneko adjudikazioa egiteko baimena eman ahal izango da, bestelako izapiderik gabe.

79. artikulua. Zuzeneko adjudikazioa.

1. Zuzeneko adjudikaziorako baimena eman ondoren, Zerga- bilketako Zerbitzuak ondasunak ahalik eta baldintza ekonomikorik onenetan besterentzeko kudeaketak egingo ditu. Adjudikazioa besterentze-erabakia jakinarazten denetik hiru hilabeteko epean egingo da, beranduenez. Epe hori sei hilabetera luzatu ahal izango da.

Luzapena Zerga-bilketako Zerbitzuko buruak baimendu behar du, eta araudi honetako 72. artikuluko 2. zenbakian xedatutakoaren arabera jakinaraziko da.

Adjudikazioari buruzko ebazpena Zerga-bilketako Zuzendariordeak emango du, Zerga-bilketako Zerbitzuko buruak egindako proposamena kontuan hartuta, eta jasotako eskaintzarik onenari adjudikatuko zaio.

2. Zuzeneko adjudikazioa Interneten argitaratu beharko da, erabakia hartu eta hamar egun balioduneko epean, gehienez ere, lehia sustatzea komeni denean izan ezik.

Zuzeneko adjudikazioa lehenagoko enkanteak edo lehiaketak adjudikatu gabe geratu direlako egiten bada, Interneten argitaratutakoa gutxienez hamabost egun naturaleko epean mantendu beharko da argitaratuta.

Kasu horretan, eta ondasunak zuzeneko adjudikazioaren bidez ere besterendu ezin badira, baliorik gabekotzat joko dira, ordaindu behar duenaren hutsegitea aitortzeari dagokionez, eta hirugarren interesdun batek eskatuta baino ez da hasiko zuzeneko adjudikazioaren bidez besterentzeko beste prozedura bat.

80. artikulua. Ondasunak adjudikatu ondoko jarduketak.

1. Enkantea edo lehiaketa amaitutakoan, adjudikaziodunei akta jakinaraziko zaie, eskuraketaren ondoriozko zerga-betebeharrak bete ditzaten; Foru Administrazioak adjudikaziorako lehentasuna duela agertu behar da, hala dagokionean.
2. Adjudikaziodunen gordailuak Foru Administrazioaren esku geratuko dira adjudikazioaren prezioaren konturako emate gisa; gainerakoak itzuli egingo dira.
3. Adjudikaziodunak ezin izango du inola ere adjudikazio eskubiderik laga, prezioaren gainerako zenbatekoa ordaindu beharko du Araudi honetako 72. artikulua 1. idatz-zatiko i) letran ezartzen den epean. Ordaindu eta gero ondasunak edo eskubideak emango zaizkio; bidezkoa denean, eskritura publikoa emango da, edo ondasunen nahiz eskubideen adjudikazioaren akta luzatuko da. Adjudikatutako ondasunen salmenta-eskritura egiletsi aurretik, espedientea bidaliko zaio Lege Aholkularitza Zerbitzuari, Hipotekei buruzko Araudiko 26. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako.
4. Aurreko idatz-zatiak hizpide duen aktaren egiaztagirian, adjudikatutako ondasun edo eskubideari eta adjudikaziodunari buruz dioena transkribatzeaz gain, ondoko izapide hauek ere bete direlako frogagiriak jasoko dira:

1.a. Errematea ordaintzearena.

- 2.a. Lege Aholkularitza Zerbitzuaren aldetik premiamenduzko prozeduran legezko formaltasunak bete direla baiesten duen txostena ateratzearena, zerga-bilketako organoak eskatu duenean eta, nolana ere, adjudikazioa Jabetza Erregistroan inskribagarriak diren ondasun edo eskubideen gainekoa denean.

Egiaztasun hori salmentako dokumentu publikoa da ondore guztietarako, eta egiaztasun agerraziko da erregistro publikoan Foru Ogasunaren izenean egindako prebentziozko idaztoharra baliogabetuta geratu dela. Era berean, geroko zamak indargabetezko agindua emango da, Hipotekei buruzko Araudiko 175. artikuluko 2. arauak xedatzen duen moduan.

5. Baldin eta adjudikaziodunak ez badu ordaintzen errematearen prezioa Araudi honetako 72. artikuluan ezartzen den epean, ondasuna automatikoki bigarren eskaintza hoberenari adjudikatuko zaio, eta halaxe hurrenez hurren.

Halakoetan, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak adjudikaziodun berriari eskatuko dio gehienez hiru egunen buruan besterentzearen iragarkian eskatutako berme gordailua eratzeko; ohartaraziko dio, gainera, errematearen prezioa esandako epe horretan osatzen ez badu eratutako gordailuaren zenbatekoa ere galduko duela, Foru Administrazioak ukoaren egunetik hasi eta hamar egunen buruan edo errematea ordaintzeko azkeneko egunean adjudikazio berriaren zenbatekoan adjudikazioa bere egiteko duen lehentasuna baliatu ezean.

Kentzen diren gordailuen zenbatekoak Foru Administrazioan sartuko dira adjudikazioaren berandutzaren kalte-ordain gisa.

6. Baldin eta lehenengo adjudikaziodunak errematearen prezioa ordaindu ez eta ondorioz zorraren zenbatekoa osoa estaltzen ez bada eta ondasun batzuk adjudikatu gabe geratzen badira, beste deialdi bat egingo da ondasun edo erlo horiek besterentzeko aurreko enkantearen baldintza eurretan.
7. Lortutako diru kopurua zorrak kitatzeko aplikatutakoan, besterentzearen prezioaren soberakina, egonez gero, besterendu diren ondasunen edo eskubideen titularraren esku jarriko da Foru Ogasunean. Ezin eskatu izango du korriturik. Besterentze-erabakiaren ondorengo eskubideen titularrak badaude, horri buruzko arautegia aplikatuko da.
8. Zorra, korrituak eta prozeduraren kostuak estalitakoan, Zerga-bilketako Zerbitzuko Burutzak besterendu gabe dauden ondasunen enbargoa kentzeko agindua emango du eta, behar denean, zordunari emango zaizkio.

81. artikulua. Ondasunak Foru Administrazioari adjudikatzea.

1. Besterentze-prozeduran enbargatutako ondasunetako bat adjudikatu gabe geratzen bada eta zorren bat estali gabe, Zerga-bilketako Zuzendariordetzak, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak proposatuta, Foru Administrazioari adjudikatu ahal izango dio interesatzen zaiona.
2. Adjudikazioaren prezioa zorraren zenbatekoa izango da; inolaz ere ezin da gaintitu eskaintzetarako ezarritako gutxieneko zenbatekoa eta zordunak edo ondasunaren titularrak ez du izango konpentsazio ekonomikoa jasotzeko eskubiderik.
3. Adjudikatuko diren ondasunen gaineko zamen edo kargen zenbatekoa Foru Administrazioaren adjudikazio-prezioa baino gehiago bada, aldeztatik txostena egin beharko du Ondare Zerbitzuak.

VI. ATALA

PREMIAMENDU-PROZEDURAREN KOSTUAK

82. artikulua. Prozeduraren kostuak.

1. Premiamendu-prozeduraren kostutzat hartzen dira derrigorrezko betearazpeneko prozesuan zehar sortzen diren gastuak. Kostu horiek premiamendupekoaren konturakoak dira, eta berari eskatuko zaizkio.
2. Prozeduraren kostuen kontzeptupean honako gastu hauek sartzen dira:
 - a) Enbargatutako ondasunen balorazio, mugapen eta besterentzeetan esku hartzen duten Administrazioaz kanpoko enpresa edo profesionalen lansariak.
 - b) Erregistratzaileen lansariak eta Erregistro publikoetako jarduketengatik ordaindu beharreko gainerako gastuak.
 - c) Enbargatutako ondasunen gordailuarengatik eta administrazioarengatik ordaindu behar direnak. Zehazki, gordailuzainik bada, beren lansaria, baita garraio, paketatze, biltegiatze, mantentze eta kontserbazio gastuak ere, aurreko idatz-zatian aipatutako lansarian sartuta ez badaude.
 - d) Ondasunak kudeatzeko behar diren administrazio-zereginak egiteagatik sortzen direnak, Araudi honetako 57. artikuluko 3. idatz-zatiko eta 58. artikuluko 4. idatz-zatiko kasuetan.
 - e) Lehentasunezko hartzekodunei egindako ordainketak, Araudi honetako 49. artikulua 1. idatz-zatian xedatzen den bezala.
 - f) Betearazpenak berak eskatu eta eragiten dituen gainerako gastuak.
3. Administrazioaren organoen gastu arruntak ezin dira kostu modura sartu.
4. Gastuak behin zerbitzuak beteta ordainduko dira. Erregistro publikoetako lansariak behin ondasunak besterendu direnean edo egin nahi den gordailua egin denean ordainduko dira.
5. Prozeduraren kostuen ordainketa aurreratu ahalko da, zerga-bilketako organoaren iritziz egoki irizten zaionean.

83. artikulua. Administrazio eta gordailuko lansari eta gastuak.

1. Enpresak edo profesionalak lansariak, ofizialki jarrita dauzkaten tarifen araberakoak edo Administrazioarekin sinatutako kontratuan zehaztu diren bestekoak izango dira.

Zerbitzu hauek bete eta gero ordainduko dira, Zerga-bilketako Zerbitzuko Burutzak adostasuna eman ondoren.

2. Erregistro publikoen jarduketengatik sortzen diren gastuak indarreko araudian finkatutakoak dira. Zerga-bilketako organoei informazioa doan emango zaie.

Erregistratzaileek edo erregistroetako arduradunek bidezkoak diren gastuen faktura egingo dute, eta ondasun enbargarriekin lotuta aurkeztzen zaizkien edo egiten dituzten agindu edo gainerako dokumentuetan zainpetuko dituzte.

Lansari horiek ondasunak besterendu direnean edo jazarritako zorra kobratu denean ordainduko dira. Kreditua kobrazina balitz, ordainketa kosteen likidazioa egin eta gero egingo da, horretarako gaitutako funtsen pentzuan.

3. Honako hauek hartuko dira enbargatutako ondasunen gordailuengatik sortutako gastutzat:

- a) Gordailuzaintzako lansaria, izatekotan.
- b) Garraio, paketatze edo txukuntze, pilatze, mantentze, kontserbazio, zaintza eta erakuspen lanen ondoriozkoak, aurreko letran aipatutako lansarian sartuta ez badaude.
- c) Ondasunak kudeatzeko behar diren administrazio-zereginak egiteagatik sortzen direnak, Araudi honetako 82. artikuluko 2. idatz-zatiko d) letran aurreikusitako kasuetan.

84. artikulua. Kostuen likidazioa.

1. Premiamenduko espediente bakoitzean horri dagozkion kostuak zenbatuko dira.
2. Zergapeko bat baino gehiagori ukitzen dioten eta banan-banan egotzi ezin zaizkien kostuek denon artean banatuko dira, bakoitzari bere zergaren proportzioan.
3. Zergapekoari ezin izango zaio inongo kostu partidarik eskatu, baldin eta espedientearen frogatzen dituzten lansarien ordainagiri, faktura edo minutak ageri ez badira.
4. Zergapekoari ordainketaren frogagiria ematen zaionean, frogagirian bertan edo bereiztuta, haren konturako kostuak agerraraziko dira, zein kontzepturi dagozkion xehatuz.
5. Ordaindutako kostuak itzuli behar dira sortu direneko likidazioa edo premiamendu-prozedura baliogabetzen direnean.

VII. ATALA PREMIAMENDU-PROZEDURAREN AMAIERA

85. artikulua. Espedientearen amaiera.

1. Kapitulu honetan araututako prozeduran jazarritako zorrak eta kostuak estaltzen direnean, hala agerraraziko da premiamendu-espedientearen, eta ondorioz amaituta geratuko da.
2. Jasotako zenbatekoa nahikoa ez balitz, ase gabeko zatiarengatik, Araudi honetako I. tituluko IV. atalean zordunentzat xedatutakoaren haritik joko da.
3. Zordunari erabat ordaindu diren zorren ordainketaren frogagiriak emango zaizkio.

Zati batean ordaindu diren zorrengatik, zati horri buruzko ordainketaren frogagiria emango zaio.

4. Zerga-zorren ordainketari zergapeko batek baino gehiagok solidarioki aurre egin dioten kasuetan, prozedura ez da amaitutzat joko ordaindu duen zergapekoak bere erantzukizunaren oinarriaren kontrako errekurtsorik edo erreklamaziorik jarri duenean, errekurtsio edo erreklamazioaren gai izan den egintza sendoa ez den bitartean. Halakoetan, ordainketak zerga-bilketako prozedura une horretara arte etenaraziko du.

II. KAPITULUA HIRUGARRENGOTZAK

86. artikulua. Izaera eta eskumena.

1. Administrazioaren bidetik doan erreklamazioa, Auzitegi eta Epaitegi Zibilen aurreko hirugarrenengoaren ekintza bideratu aurreko baldintza modura, premiamendu-prozedura izapidetzen denean zein badaezpadako neurriak hartzen direnean jarri ahalko da, eta Atal honetan jasotako arauen ildotik izapidetu eta ebatziko da.
2. Hirugarrengotza zordunari enbargatutako ondasunen jabarian edo premiamendu-espedientearen xede denean duen lehentasunaren eskubidean soilik oinarritu ahalko da, badaezpadako neurriak hartzen direnean izan ezik, horietan jabarian baino ez baita oinarrituko.

3. Zergapekoak jarritakoa ez da hirugarrenen baten erreklamazio modura hartzerik izango.

87. artikulua. Aurkezteko modua, epea eta ondoreak.

1. Hirugarrengotzaren erreklamazioa idatziz jarriko da, hirugarrenak bere eskubidearen oinarritzat hartzen dituen jatorrizko agiriekin batera; eta jatorrizko horiek berreskuratu nahi baditu, kopiak ere eramango ditu, behin egiaztatu ostean itzul diezazkieten.

Hirugarrenak erreklamazio-idatziari bere eskubidea sostengatzeko jatorrizko agiririk eransten ez badu, izapidetzarako organo eskudunak hamar eguneko epean hutsune hori ongitzeko eskatuko dio, eta berariaz ohartaraziko dio halakorik egin ezean erreklamazioari uko egiten diola ulertuko dela. Horrela, beste inolako izapiderik gabe, artxibatuko dute.

2. Ez da jabarizko hirugarrengotzarik onartuko eskritura sinatu eta gero, ondasunen salmenta gauzatu eta gero edo Foru Administrazioari ordaintzeko adjudikatu eta gero. Ez da eskubide hobeko hirugarrengotzarik onartuko salmentaren prezioa jaso eta gero, edo ondasunak edo eskubideak adjudikazio-emaleari adjudikatzekotan, hark, legeri zibilean xedatutakoaren arabera, titularitatea beretu eta gero.
3. Idatzia jasotzen denean, premiamendu espedienteari batuko zaio, eta hirugarrengotza jabari edo eskubiderik oneneko modura kalifikatuko da.
4. Hirugarrengotza jabarizkoa balitz, honako ondore hauek izango lirateke:
 - a) Ondasunak zelakoak diren arabera, ziurtatzeko neurri bat ala beste hartuko da, hala nola, enbargoen idaztoharra Erregistroetan, ondasunen gordailuak edo egoki den bestelakorik.
 - b) Behin neurri horiek hartuta, arazotsuak diren ondasun edo eskubideen gaineko prozedura etengo da.
 - c) Ondasunak dirua badira, eskudirua zein kontuetan dagoena, Foru Diruzaintzan zainpetuko dira, edo zerga-bilketako organoaren eskueran dauden kontuetan atxikitzeko agindua emango da, zerga-bilketako organoak erabakitzen duenaren arabera.
 - d) Ondasun edo eskubideak, berandutzekotan, hondatu gabe edo balio galera nabarmenik jasan gabe kontserbatzerik ez dagoenean, Zerga-bilketako Zuzendariordeak besterentzea erabaki ahalko du, Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak proposatuta, eta halakorik eginez gero, hirugarrengotzaren erreklamazioaren ebazpenaren ondorioz ateratako zenbatekoa zainpetuko da.
 - e) Prozedurak hirugarrengotzak xede izan ez dituen zordunaren gainerako ondasun eta eskubideekin segituko du, zorra osorik ordaindu arte. Zorra osorik ordaintzen denean, indarrik gabe geratuko da erreklamazioaren gai izandako ondasunen gaineko enbargoa, erreklamazilogilearen titularitatearen inolako aitorpenik ekarri gabe baina.
5. Eskubide hobeko hirugarrengotza aurkeztuz gero, prozedurak aurrera egingo du ondasunak gauzatu arte eta lortutako kopurua gordailuan gordeko da hirugarrengotzaren gaineko ebazpena eman arte.

88. artikulua. Izapidetza eta ebazpena.

1. Hirugarrengotzari buruzko idatzia, erantsitako dokumentazioarekin eta espedientearen kopiarekin batera, Lege Aholkularitza Zerbitzura bideratuko da, txostena eta ebazpen proposamena helaraz diezaion Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuari; foru diputatuak gaia sustatu zen egunetik hasi eta gehienez hiru hilabeteetan ebatzi beharko du auzia.

Hiru hilabeteren buruan ebazpenik jakinarazi ez bada, hirugarrengotzadunak erreklamazioa ezetsi zaiola ulertu ahalko du, judizioko demanda jartzera begira.

2. Emandako ebazpenaren gaineko berariazko jakinarazpena dagoenetik, edo administrazioaren isiltasunez erreklamazioa ezetsizat hartzen den egunetik hasi eta hilabeteko epean Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzari judizioko demandaren bat jarri delako frogagirik aurkezten ez bazaio, erabakitako etena altxatu eta premiamendu-prozeduraren izapideekin aurrera joko da.
3. Epaitegi eta Auzitegi Zibiletan hirugarrengotza auzietan esku hartzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren Lege Zerbitzuak, auzi horietan ateratzen diren epai irmoen berri emango dio Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzari.

89. artikulua. Erreklamazioa onestearen ondorioak.

1. Hirugarrengotza jabarizkoa balitz, erreklamazioa onesteak hirugarrengotzaren erreklamazioak jomuga zituen ondasun edo eskubideen gainean egindako enbargoa kenaraziko luke, salbu eta aurretiaz, berandutzekotan, hondatu gabe edo balio galera nabarmenik jasan gabe kontserbatzerik ez zegoenez, besterentzea erabaki balitz. Halakorik gertatzekotan, erreklamaziogileari eragiketa horretan ateratako produktua emango litzaioke, berandutza-korrituak ere bere alde likidatuz.
2. Hirugarrengotza eskubide hobekoa balitz, erreklamazioa onesteak gauzapenean lortutako produktua erreklamaziogileari emanaraziko luke, behin premiamenduko administrazio-prozeduran gauzatzeko beharrezko kostuak kenduta.

90. artikulua. Foru Administrazioaren aldeko hirugarrengotzak.

Ondasunak enbargatzean ikusten bada hauek beste prozedura betearazle, judizial edo administratibo batengatik jada enbargatu direla, organo eskudunari jakinaraziko zaio, behar bezain xeheki, honek Foru Aldundiko Lege Zerbitzuari jakinaraz diezaion. Lege Zerbitzuak, bidezko baderitzo, Aldundiaren eskubide hobearen defentsarako egoki ikusten dituen ekintzak bideratuko ditu.

III. KAPITULUA FORU ADMINISTRAZIOA KONKURTSO PROZEDURETARA ETA BETEARAZPEN PROZEDURETARA AGERTZEA

91. artikulua. Foru Administrazioaren agerpena.

1. Zerga Administrazioak Foru Administrazioaren eskubideengan eragina izan dezaketen prozedura judizialei buruzko informazioa eska dezake. Organo judizialak behartuta daude, ofizioz zein egoitza judizialean agertuz, organo horrek kreditu publikoen defentsarako eskatzen duen informazio garrantzitsu guztia ematera; Zergei buruzko Foru Arauko 93. artikuluko 3. zenbakian eta 168. artikuluko 3. zenbakian ezartzen da betebeharrak hori.
2. Konkurtsu-prozeduretan, Zerga-bilketa Ikuskatzeko Zerbitzuko buruak egin beharreko jarduketa guztiak egingo ditu prozeduran kontuan hartu behar diren Foru Administrazioaren kredituak zehazteko, eta Lege Aholkularitzarako Zerbitzuari jakinaraziko dio, Foru Administrazioaren eskubideak defenda ditzan.
3. Aurreko idatz-zatietan xedatutakoa, kasuan kasuko berezitasun egokiekin, Foru Administrazioaren eskubideei ukitzen dieten ondasunak atzemateko edozein prozedura ez-judizial aplikatuko zaio.
4. Foru Administrazioak konkurtsu prozeduretan iristen diren itun edo hitzarmenak sinatu ahalko ditu, konkurtsu prozeduran dituen ordezkarien bidez, aurretiaz Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak baimenduta, eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 168. artikulua 4. idatz-zatian jarritako mugekin.

Kasu honetan, masa pasiboan sartuta dauden zorrak konkurtso arautegiaren aplikaziotik ateratzen denaren arabera tratatuko dira.

5. Zerga-bilketa hitzarmen honen arabera kudeatzen ari diren beste Herri Administrazio batzuen kredituak daudenean, administrazio horiei jakinaraziko zaie konkurtso prozesua dagoela; espedienteak dagokion Administrazioa itzuliko dira, prozeduran espedienteen defentsarako ager dadin, biek bestelakorik hitzartu ez badute.
6. Foru Ogasunak konkurtso administrazioan parte hartzen badu, konkurtso legerian dioenaren haritik, administratzaile arituko den funtzionarioa Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak izendatuko du.
7. Zerga-bilketako Zuzendariordetzak proposatuta, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak baimena eman dezake ondasunak besterentzeko prozeduretan eskaintzak aurkezteko, Foru Administrazioaren zorreatatik bermea edo enbargoa eratuta duten hartzekodunen konkurtsoetan, kreditu publikoaren defentsarako komenigarritzat jotzen denean, aurrekontu-kreditua xedatu ondoren, beharrezkoa denean.
8. ...
9. ...

IV. KAPITULUA XEDAPEN BEREZIAK

92. artikulua. Herri Ogasunaren aurkako delituaren ziozko erantzukizun zibilaren ordainarazpena.

1. Foru Administrazioarekin zorpetutako inork Herri Ogasunaren kontrako delituen batengatik erantzukizun zibilik balu, erantzukizun zibil horren ondoriozko zorra, izatekotan, eskatuko litzaioke ondasunen enbargo, traba eta besterentzeen dilijentziak egiteko ondoretarako, zordunaren kontra bideratzen ari den premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez. Erantzukizun zibilaren ondoriozko zenbatekoari ezin izango zaizkio ordainarazpen-aldiko gainkarguak gehitu.

Foru Administrazioak, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren Seigarren Xedapen Gehigarriaren 1. idatz-zatiak hizpide duen erantzukizun zibilarekin batera, erantzukizun horren zenbatekoaren gainean, ebazpen judizial irmoa den egunetik sortutako korrituak eta premiamendu-prozeduraren kostuak ere eskatuko ditu, epaileak edo auzitegiak besterik erabaki ez badu.

2. Foru Administrazioako zerga-bilketako organoek Herri Ogasunaren kontrako erantzukizun zibila ordainarazteko emandako premiamenduzko administrazio-prozeduraren egintzen kontra, berraztertze errekurtsoa edo ekonomia-administraziozko erreklamazioa jarri ahalko da, salbu eta argudiatutako inpugnazio zioak inpugnatutako ordainarazpen egintza horiek premiamendu-prozeduraren bidez ordainaraztea lortu nahi den Herri Ogasunaren kontrako delituarengatik erantzukizun zibila zehaztu duen epaiarekin ondo egokitzen direla edo bat datozela diotenean. Halakoetan, auzia erabakiak hartzeko eskuduna den epailearen aurrean edo auzitegian planteatuko da.
3. Epaileak edo auzitegiak Zigor Kodeko 125. artikuluaaren haritik erantzukizun zibila zatika ordaintzearen gainean hartutako erabakia urratzen bada, ordaindu gabe dagoen zenbateko osoa premiamendu-prozeduraren bidez ordaintzeko eskatuko da. Halakoetan ezin izango da aplikatu ordainarazpen-aldiko gainkargurik, baina bidezkoak diren korrituak eskatuko dira.
4. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren Seigarren Xedapen Gehigarriaren 4. idatz-zatian dioena betetzeko, Ogasun publikoaren kontrako delituaren ondoriozko erantzukizun zibila ordainarazteko eskudunak diren organoek agindu zaien hori gauzatzen gerta litekeen

edozein gorabeheraren berri emango diote epaileari edo auzitegiari eta, nolnahi ere, honako jarduketa eta akordioen jakinaren gainean jarriko dituzte:

- a) Premiamendu-prozeduraren bidez izaten diren diru sarrerak.
 - b) Erantzukizun zibilaren ondoriozko zorraren zenbateko osoa sartu dela.
 - c) Erantzule zibilaren huts eginaren administrazio-adierazpena eta kreditua kobraezina delako administrazio-adierazpena.
5. Epaian bertan erantzukizun zibilaren beste erantzule solidario edo subsidiariorik dagoela adierazten bada, ez da erantzukizunaren administrazio-adierazpenik beharko zorra eskatzeko; aitzitik, eskatzeko baldintzak direnean eskatuko zaie ordaintzeko.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Erantzukizuna adierazteko eskumena.

Zerga-bilketa Zerbitzuko Burutzak dauka erantzukizun adierazpeneko administrazio-egintza emateko eskumena, adierazpena borondatez ordaintzeko epealdia amaitu eta gero egiten bada, Zergei buruzko Arau Orokorreko 40. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

Bigarrena. Preskripzioa adierazteko eskumena.

Konkurtoei buruzko legeriaren arabera konkurto-zortzat eta masaren kontrako zortzat jotzen diren zorren kasuan, Zergabilketako Zuzendariordetzako titularrak dauka zorren ordaintzeta eskatzeko administrazio-ahalmena noiz preskribatuko den adierazteko eskumena, Zerga-bilketako Zerbitzuko buruak edo Zerga-bilketa Ikuskatzeko Zerbitzuko buruak egindako proposamenaren arabera.

Hirugarrena. Bitarteko teknikoaren aplikazioa: horien bidez ateratako dokumentuen balioa eta eraginkortasuna.

1. Araudi honetan araupetutako zerga-bilketa prozeduretako behin betiko zein tramitezko egintza guztiak, teknika eta bitarteko elektronikoak, informatikoak eta telematikoak aplikatuz egin ahal izango dira, indarreko araudian xedatutakoaren ildotik.
2. Egintza horiek formulatzen dituzten edo jakinarazteko baliatzen diren dokumentuak, sinadura barne, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak onetsitako bitarteko elektroniko, informatiko edo telematikoaren bidez eginda badaude, erabat baliozkoak eta eraginkorak izango dira, betiere horietan benetakoak direna bermatzen bada diputatuak esandako datuak inprimatuz, indarreko araudian xedatutakoaren ildotik.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarra. Izapidetzeko prozedurak.

1. Araudi hau indarrean jartzen den egunetik aurrera bete gabe dauden geroratzeetan hemen jasotako zerga-bilketarako prozedura beteko da.
2. Araudi honetan xedatutakoa aplikagarria izango da:
 - a) Kautelazko enbargoetan, indarrean jartzen diren egunetik aurrera erabakitzen badira.
 - b) Ondasun eta eskubideen enbargoak gauzatzean, enbargo dilijentzia indarrean jartzen den egunetik aurrera ateratzen bada.
 - c) Enbargatutako ondasun eta eskubideak besterentzean, besterentzeko akordioa indarrean jartzen den egunetik aurrera hartzen bada.

3. Zerga-bilketako organoek lehenago indarrean zegoen arautegiaren arabera beraien aurrean bultzatutako prozeduretan egiten dituzten egintzak eta izapideak baliozkoak izango dira araudi hau indarrean jartzen den egunetik aurrera hasi edo jarraitzen diren administrazio-prozedura berrietan.